

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA



Erraldoi gosez

Irurtzango eta Altsasuko erraldoi eta buruhandien konpartsak jendaurrean izan ziren asteburuan / 2-3



'Altsasu (Gau Hura)'
film dokumentala
aurkeztuko
dute lortia kultur
gunean / 22-23

Etxebizitzen %76,46
ohiko bizilekua da.
Gainontzeko %23,54
hutsik daude edo
2. etxebizitza dira / 11

Etorkizuneko
mugikortasun
eredurako pausoak
ematen hasi da
Mankomunitatea / 13

Kontxako Banderan
edozer gerta daitekeela
eta sorpresa emateko
prest daudela dio
Ibai Gonzalezek / 17

Uharte Arakilgo
Zumbathoi Solidarioa
antolatu dute
larunbatean, Motxila 21
taldea laguntzeko / 19

2X1
GRADUATUTAKO
BETAUERREKOSTAN

Intxostia zeharbidea 10
(Altsasu)
948 563 124
www.optikasakana.com

Sakanaoptika
optikariek la. garbierak eta kontaktuak ere

Miresmen erraldoia

Erraldoi eta buruhandi konpartsek duten erakartze ahalmenaren lekuko izan dira Irurtzun eta Altsasu asteburuan. Konpartsen deialdira txiki eta helduak agertu dira, hutsik egin gabe; irudi horien erakarpen ahalmena, berriro ere, frogatua gelditu da

Alfredo Alvaro Igoa / Iune Trecet

Obeso IRURTZUN/ALTSASU

Haiena kalea da, jendearekin zuzeneko harremana. Baina COVID-19 gaitzak hori gabe utzi ditu bigarren urtez erraldoi eta buruhandien konpartsak. Ezin herrian barnako kalejirarik egin, ezin txikien artean ilusiorik sortu. Horregatik, behar bezalako protokoloekin, Irurtzongo eta Altsasuko erraldoi eta buruhandien konpartsek lotura horri eusteko bestelako moduak opatu dituzte. Konpartsa kideen irudiak hartzeko gogoazasetzeko modua izan da, baita txikiak eta helduak gozatzen ikusita, gogoak eta ilusioa mantentzeko modua ere.

Irurtzongo erraldoi eta buruhandien konpartsak irudiak udaletxeko bajaran ikusteko aukera izan dute hala nahi izan duten guztiek; astez, arratsalde; asteburuan, goizez. Francisco Navarro Villosladak *Amaia edo euskaldunak VIII. mendean* eleberriaren pasarte bat Irurtzongo Biahizpen kokatu zuen, eta handik hartu zuten irurtzundarrek herriko erraldoiak egiteko inspirazioa 1982an. Erraldoiek 3,3 eta 3,42 metro arteko luzera dute eta 55 kiloko pisua daukate.

Konpartsa honako irudiek osatzen dute: Amaia, Garzia Ximenez, Goñiko Teodosio eta Petronila erraldoiak, zaldia eta Aralarko herensugea zaldikoak eta deabrua, afrikarra, sorgina eta Olentzero

buruhandiak. Gogo biziz hartu dituzte bisitak. Seiko taldeetan sartzea zegoen, eta hala egin zuten txikiek zein handiek. Gogoko erraldoiaren ondoan argazkia egin zuen batek baino gehiagok.

Altsasuko erraldoi eta buruhandien konpartsak, berriz, emanaldia eskaini zuen Iortia kultur gune pareko zabalgunean igande arratsaldean. Makina bat jende elkartu zuen hitzorduak. Sorgina, Akerra eta neska eta mutil kintoen erraldoiak dantza erakustaldia eman zuten miresleeren aurrean. Haurren batek etxean duen erraldoi txikia ere atera zuen. Emanaldiaren ondoren asko izan ziren erraldoien-gana hurbildu eta aukera baliatu zutenak gogokoenarekin argazkia egin eta hura gogokoen artean gordetzeko.

Inkesta

1. Zein da zure erraldoi edo buruhandi gustukoena?
2. Etxean erraldoirik bala duzu? Handia edo txikia?
3. Handitan erraldoiekin dantzatu nahi duzu?



Erraldoi konpartsaren erakarpen ahalmena agerian gelditu zen Altsasun igandean.



Estela. Irurtzun. 4 urte

1. Garcia Ximenez
2. Txikia
3. Bai



Ruth. Irurtzun. 4 urte

1. Deabrua
2. Ez
3. Bai



Oliver. Irurtzun. 3 urte

1. Petronila
2. Ez
3. Bai



Simo. Irurtzun. 6 urte

1. Deabrua
2. Ez
3. Erraldoiekin



Walid. Irurtzun. 5 urte

1. Afrikarra
2. Ez
3. Buruhandiekin



Katixa. Lakuntza. 4 urte

1. Kinto neska
2. Ez
3. Bai



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com - www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikarra: 690 641 860





Seinaka bada ere, makina bat jende pasa zen Irurtzungo erraldoi eta buruhandi konpartsa ikustera.



Hurrengo lasterraldiekin amets egiten buruhandiak eta txikiak.



Intza. Lakuntza. 4 urte

1. Kinto neska
2. Ez
3. Bai



Malen. Lakuntza. 4 urte

1. Kinto neska
2. Ez
3. Bai



Egoi. Altsasu. 6 urte

1. Kintoa
2. Bai, handi bat, izebak egina
3. Bai



Izei. Altsasu. 6 urte

1. Momotxorroa
2. Bai, txikiak
3. Bai



Nahikari. Altsasu. 4 urte

1. Sorgina
2. Buruhandi txikiak
3. Bai



Irati. Altsasu. 4 urte

1. Sorgina
2. Erraldoi handia
3. Bai



Konpartsako kideek erraldoiak dantzan jarri zituzten.



Haurrak bai, baina helduak ere miretsita begiratu zieten erraldoien dantzei.

Premiazko deialdia

Irurtzungo konpartsan erraldoiak dantzatzeko jende premia dute. Interesa duenak hots egin dezala 690 335 196 (Amalia) telefono zenbakira.

HARA ZER DIEN

Mugimenduan gaude, lurrikara gara!

ERRAFAILAK SAKANAN

Urriaren 8, 9 eta 10ean Elizondon Euskal Herriko Neska* gazteon baterajotzea egingo da. Bertan, neska* gazteok gaur egun pairatzen ditugun problematikei buruz hausnartuko dugu, baita sareak eskaintzen dizkigun indarraz probestu ere.

Neska* gazteok sozialki zigor handia jasan behar izan dugu, komunikabideen, indar polizialen eta herritarren jomugan egon gara, (kasu batzuetan) gu errudun bihurtzeraino. Sozializatzeko espazioak ere ukatu dizkigute. Gaztetasuna gure sareak sortu eta garatzeko garaia izanik, gure behar izanak kontuan hartu gabe jokatu dute; eta horrek ondorio larriak izan ditu, ez da kasualitatea gazteen gaixotasun mentalen tasak ugaritu/disparatu izana, baita nesken elikadura-jokabidearen nahasmendua ere.

Hori gutxi balitz bezala, gure jardun politikoa aurrera

eramateko hamaika oztupo izan ditugu, eta feminismoaren presentzia hain beharrezkoa den momentu hauetan, herri, auzo edo lurralde mailan antolatzea eta eragin ahal izatea buruhauste bilakatu da.

Zeregin eta lan handia dugu horri aurre egiteko, gure bizitzak nola bizi nahi ditugu aldarrikatzeko, orain arte kontuan izan ez dena berriz ere oihukatzeko eta euskal herri feminista lortzeko.

Baterajotzea *Mugimenduan gaude, lurrikara gara* lelopean izango da, dena astintzera gatzelako. Indartsu gaude, baina baterajotzetik inoiz baino indartsuago aterako gara.

Baterajotzea bertan dugu, anima zaitetz! Irailaren 17an, arratsaldeko 18:00etan bilera irekia egingo dugu Sakanan. Pentsatzeko, hausnartzeko, ikasteko, eztabaidatzeko eta elkar zaintzeko tartea ere izanen dugu. Laster informazio gehiago zabalduko dugu.

Antolatu! Feminismora batu!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu-luka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefona. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

OBJEKTIBOTIK



'borxa a'rištīmū,nō {tho/berori} @protoeuskaldun · 19 h
Ba "guk beti hola esan diogu" bat egitekotan nengoen, baina, horren orde, zuei galdetuko dizuet: nola esaten diezue holakoei euskaraz? (nongoa zaren esaten baduzu, hobe)



17 1 5



Itsasi Euskaltegia @ItsasiEuskalteg · 16 h
Kartapazioa.

Telegram kanal berria

Sakanako informazio guztia zure eskura

guaixe



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhua Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Idoia Artieda Larraza

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Gobernuari hondakin kudeaketaz iritzia emana

2022rako aurreikusitako Hondakin Planaren etorkizuneko berrikuspena eginen da eta hari begira Nafarroako Gobernuak mankomunitateekin egiten ari den bilera errondaren barruan izan zen. Hondakin Legean jasotakoan sakontzeko eskatu dio Mank-ek

SAKANA

Nafarroako Gobernuak 2022rako aurreikusi du 2017-2027 Hondakin Planaren berrikuspena. Planaren ebaluazio eta berrikuspen bat eginen da, "hartutako neurrien eraginkortasuna eta emaitzak" aztertzeko. Horregatik, Sakanako Mankomunitateko lehendakari David Oroz Alonso Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilari Itziar Gomez Lopezekin bildu zen agorrilaren 11n, hura Nafarroako mankomunitateetako ordezkariekin egin duen bilera errondaren barruan.

Ibarrean etxeko hondakin biltzetaz arduratzen da Mank eta zerbitzu horren egungo berri



Sakana, Mendialdea eta Araxeseko ordezkariak kontseilariarekin. UTZITAKOIA

eman zion Orozek Gomezi. "Baliatu genuen gure errealitatea ezagutarazteko eta egiten dugun lanari balioa aitortzeko. Izan ere, Nafarroan gaikako sailkatze daturik onenak dituen eskualdea baita Sakana", argitu du Orozek. Ibarreko erakundeko lehendakariak kontseilariari "Hondakin Legeak jasotzen duen ideian sakontzeko beharra" azpimarratu zion, "hau da, ondo egiten duenak horren arabera errekonozimendua jaso beharko luke. Eta sortutako hondakin arbera pagatzeko ideiarra pixkanaka hurbildu beharko ginatekeela esan nion".

Orozek azaldu duenez, Gomez kontseilariari beste betebeharraren berri eman zion: "herritarrendako mezuak eta lan didaktikoa bateratu eta sakondu beharra. Hondakinak gaika sailkatzea ezinbestekoa da". Mank-eko lehendakariak gaineratu duenez, "gauzak ondo egitea motzean ez da merkeagoa izango, baina lurrraren iraupenaz ari bagara, egin beharrekoak egin behar dira..."

Horretaz aparte, hondakin arloan Mank-ek dituen behar

materialak ere izan zituzten hizpide Gomezek eta Orozek. Esaterako, kamioi flota berritzearen beharra. Azkenik, esandako guztia bertatik bertara erakusteko, Utzubar EKO Guneko konpost planta erakutsi zioten kontseilariari, "Sakanako materia organikoa bertan bildu eta konpostatzeari balioa eman genion. Herritarren artean nola banatzen dugun, nola estimatzen duten" azaldu zioten, baita nekazaritza ekologikoan erabiltzeko moduko konposta sortzen dela ere.

Artile bilteta

Joan den astean despeditu zuten urteko azken bilteta 10.260 kilorekin. Maiatzean beste 4.840 jaso zituzten. Guztira 15.100 kilo jaso dira. Denak Artaxoako konpost plantan bukatuko du, egituratzaile gisa. 2020an baino 9.260 kilo gutxiago jaso dira, aurretik gordea zegoena ere eraman zelako 2020an.

**INOIZ BAINO
BEHARREZKOAGOAK
DIREN GAUZAK DAUDE**

#ElkarlanerakoOrduaDa



Eskaneatu,
gehiago jakiteko

Frankismoaren biktimak omenduta

Jende mordoak elkartu zen igandean Otsaportilloko lezean, urteroko moduan, 1936ko estatu kolpearen ondorengo biktimei aitortza egiteko. Haien artean zegoen lezeak eman duen azken identifikatutakoaren alaba, Concha Dieguez Jaka

SAKANA

Arakilgo eta Irurtzungo udalen ardura izan zen aurten Otsaportilloko historia memoria ekitaldia antolatzea. Oihana Olaberria Jaka eta Aitor Larraza Carrera alkateek, esan zuten, "Otsaportilloko lezea basakeria frankistaren salaketaren eta giza eskubideen defentsaren adibide garbientako bat bihurtu da. Gure presentziak eta parte harze aktiboak, bizitza bidegabeki kendu zitzaizen haiek omentzen ditu. Eta, bide batez, 'memoria tokia' sendotzen du".

Alkateek gaztigatu zuten, "hainbat botere memoria selektibo bat egiten eta lantzen ahalgindu dira, beraien iraunkortasun eta kontrol interesen arabera". Eta nabarmendu zuten "hainbat hamarkadatan hildakoak eta haien familiak ezabatu egin dira oroitzapen ofizialetik. Aldi berean, minorizatutako edo errepresaliatutako taldeek historia memoria berreraikitze prozesuak ezabatuak izan dira". Horregatik, "esker ona eta miresmena" adierazi zieten "hainbeste denboran gizartearen sektore zabal baten gaitzespenaren aurrean justizia eskaerari eutsi diozuen familiei".

Bien aurretik Irurtzungo zinegotzi Eduardo Murugarren Francesek esan zuenez, "batzuei iruditzen zaie omenaldi gehiegi egiten direla. Hil egin zituzten, eta hildakoen familiek kristoren errepresioa bizi izan zuten. Alargunak eta seme-alabak ia ezer gabe gelditu ziren eta besteen mesprezua sentitu zuten". Nafarroan 3.500 pertsona fusilatu zituztela gogoratu zuen eta diktadurako eta ahanzturako 40 urteren ondoren, zinegotziaren dako "omenaldi gutxi egiten dira". Bidezko gizarte baten alde ari zirelako hil zituztela nabarmendu zuen Murugarrenek eta hildako haiek omentzearen garrantzia azpimarratu zuen.



Omenaldia lezean egindako lore eskaintzarekin despiditu zen.

"BATZUEI IRUDITZEN ZAIE OMENALDI GEHIEGI EGITEN DIRELA. GUTXIEGI EGITEN DIRA"

Kontseilaria

Herritarrekiko Harremanetarako kontseilari Ana Ollo Hualdek Otsaportilloko lezeak "gure lurraldeko memoria ondarean duen garrantzia" nabarmendu zuen. Horregatik, "Nafarroako Historia Memoriaren Leku izendatu ziren lehen tokien artean dago, leku horietan egindako krimenen memoria seinaleztatzeko, kontserbatzeko eta zabaltzeko konpromisoarekin". Ollok gaztigatu zuenez, "memoria lekuak aitortzea eta zabaltzea funtsezko elementua da gure memoria politikan". Toki gehiagori halako izendapena eman eta haien zentsua eginen dutela gaztigatu zuen.

Ollok adierazi zuenez, "memoria espazioen sare horren bidez garaileek piztutako indarkeria izugarri hori guztia transmititu nahi dugu. Eta gure gizartearen dako eta belaunaldi gazteendako

etengabeko oihartzuna izan dadin nahi dugu, Memoria duten eskolak hezkuntza programaren bidez, inoiz gehiago errepika ez daitezkeen".

Eraildako bere aitaren bilaketa nekaezina egin du urteetan Concha Dieguez Jakak. CNT-ko kide hura Altsasuko Sorozarreta dermioan erail bazuten ere, haren gorpuzkiak Otsaportilloko lezean opatutakoaren artean identifikatu zituzten duela hamar hilabete. Bere jardunagatik eskerrak eman zizkion pare zuten Conchari. Kontseilariak gaztigatu zuenez, "gorpuzkien identifikazio lanek aurrera jarraitzen dute".

Nafarroako CNT-ko Guillen Abregok eta Gorka Hamza Olliverrek esan zuten, Concha "alaba nekaezinaren eredu da. Faxismoa beregan jasan zuen haurra zenetik". Concharen aitaren bilaketa goraiatu zuten. CNT-koek nabarmendu zuten, "gutako askok oraindik ezin izan ditugu gure senideen gorpuzkiak aurkitu. Funtsezko gaia egin zizkiguten zauri guztiak josten hasteko, eta beharrezkoa gure eta gure senideen bizitzek aurrera egin dezaten".



Oihana Olaberria Jaka eta Aitor Larraza Carrera alkateak ekitaldian hitz hartu zuten.



Concha Dieguez Jakaren aita Claudio izan da lezeako azken identifikatua.



Claudio Doroteo Dieguez etxarriarra CNT-ko kidea zen; haren ordezkaria izan zen.



Igandeko historia memoria ekitaldian jende ugari elkartu zen.



Eskaintza zabala izanen da igandeko azokan. ARTXIBOA

Arakilgo eta Irurtzango azoka bueltan da

Irurtzunen eginen da igandean, 10:00etatik 14:30era; Nekazaritza merkatu gardena eta artisautza merkatua

ARAKIL / IRURTZUN

Joan den urteko etenaren ondoren, zortzigarren aldiz Arakilgo eta Irurtzango udalek azoka antolatu dute, "azoka gardena, segurua eta iraunkorra tokiko ekoizleekin. Nekazaritza jasangarria eta zaintzak plazaren erdigunean jarriko dituena" zehaztu dute udalek. "Ilusioz heldu diogu berriro Arakil ibarreko azoka tradizionalari. Gure helburua azokan parte hartzen duten eta azokaz gozatzera hurbiltzen diren pertsonen segurtasuna bermatzea da, horregatik, aurtengoan bi eremu nagusi mantenduko ditugu: tokiko ekoizleen nekazaritza merkatu gardena eta artisautza merkatua".

Udalek azaldu dutenez, "azken pandemia urte honen ondoren, zaintza lanen eta ingurunea eta pertsona zaintzen dituzten eta elikadura osasungarria eta irisgarria bermatzen duten nekazaritza eta abeltzaintzaren garrantzia egiazatu dugu. Bi alderdi horiek, askotan, bigarren mailan geratzen dira, ikusezin bihurtuta; hala ere, osasun krisiaren unerik gogorrenetan, agerian geratu da komunitatean eta pertsonen bizitzan duten zeregina".

Azoka antolatuz, zaintzei eta era jasangarrian lan egiten duen lehen sektoreari "merezi duten zentraltasuna ematea premiazkoa" irudituta zaie; azokak "sinbolikoki baserriarrak plazaren erdigunera ekartzen ditu eta nekazaritza jasangarria eta sozialki justu baten balioak transmititzen ditu", gaineratu dute.

Horregatik guztiagatik, "azokan parte hartzera, plaza eta postuetara hurbiltzera, kontzienteki eta arduraz gozatzera eta elikatzen eta zaintzen gaituen nekazaritza sentitzera animatu" dute.

Azokaz

Igande goiz eguerdian Irurtzun erdigunetik pasatzen direnek tokiko nekazari eta abeltzainen kalitatezko eta ekoizpen agroekologikoko produktuak dastatzeko aukera izanen dute. 15 erakusmahaitan, besteak beste, gazta, barazkiak, esnekiak, ogia edota ezta izanen dira salgai. Bestetik, Euskal Herriko tradiziozko artisautza sustatzeko elkarteko, Arbasoko 13 kidek beraien salmahaiak jarriko dituzte eta haietan, esaterako, jantziak, bitxiak, zurez edota larruz egindako produktuak eskuratzeko aukera izanen da.

Azoka trikitilari eta gaitarien doinuez alaitua eginen da. Gainera, plazako frontoiak haurrendako jokoak hartuko ditu. Beti ere, osasun agintariak ezarritako prebentzio neurri guztiak betez. Hori bai, aurten Arakil eta Irurtzango azokara joaten den bisitariak ez du bertako azienda arrazen erakusketarik opatuko.

Aurreko urteetan bezala, azokaren aurretik, egitarau osagarria prestatu dute. Alde batetik, Arakilgo Bertako Barietateen Gida aurkeztu zuten atzo Itsasperri ermitan. Bestetik, bihar, larunbata, 19:30ean, Pikuxar elkarteak *Tempraren guarpena*

dokumentalaren emanaldia hartuko du, baita emanaldi ondorengo solasaldia. Idoia Lahildalga Baglieto eta Oihane Puertas Ramirezen ikus-entzunezko horretan Erronkaribarreko hainbat herri eta belaunalditako lau emakumeren bizi esperientziak jaso dira. Beraien kontakizunek bizitzari buruz hitz egiten dute, herriei buruz, emakume landatarraren ikuspegitik.

Udalek azokaren antolakuntzan Sakana Garapen Agentzia, Plazola turismo partzuergoa, Arbaso, Belardi Sakanako nekazaritza ekoizleen elkarte, EHNE-Bizilur, Pikuxar euskal txokoa eta Bidelagun Sakanako turismo elkartearen laguntza izan dute. Guztiek "azokara hurbiltzeko eta antolatutako jardueratan parte hartzeko gonbidapena" egin dute.



Pikuxar

Euskal txokoa publikoari bere elkarte erakusteko ate irekien jardunaldia antolatu du iganderako. Elkarte ezagutu nahi duenak 12:00etatik 14:00etara du aukera. Bazkideak hura garilaren 30etik ari dira erabiltzen.

Gurasoak, Altsasuko gazte txokora gonbidatuta

Altsasuko Udaleko Gazteria Saila Intxostiapunta gazte txokoaren datorren ikasturtea prestatzen ari da. Eta seme-alaba gazteak dituzten gurasoei gazte txokoa ezagutzera emateko ate irekien jardunaldiak antolatu dituzte. Hala gurasoek eraikina nolakoa den, funtzionamendua eta eskaintza ezagutuko dituzte, beraien "seme-alabek bere aisialdia goza dezaten eta nola disfrutatzen duten jakin dezaten". Horregatik, Gazteria Sailak gazteen gurasoak ate irekien jardunaldietara gonbidatu dituzte. Horiek irailaren 15etik 24ra, astegunetan, 18:00etatik 20:00etara izanen dira eta irailaren 26an, domekan, 18:00etan.

Sarmen tailer honetan liburu bat egiten ikasiko dugu modu dibertigarri batean

Sarmen tailerra

LIBURU BAT EGINO DUGU

Adin tartea: 8-12 URTE BITARTE

Data: IRAILAREN 21EAN | Ordutegia: 17:00ETATIK 18:30ERA

Tokia: ARBIZUKO LIBURUTEGIAN

Izen-ematea: Tokiak mugatuak dira. Horregatik aldeztu aurretik izena eman behar da liburutegia@arbizu.eus helbidean.



Senideen besotan zeudela jaso zituzten ttattarrak umeek. UTZITAKOAK

Gazte eta zahar ekitaldi berean elkartuta

Udalak herriko adinduenei aitortza egin die, eta txikitxoenei ongi etorria. Festak izan behar luketen garaian udalak antolatu duen ekitaldi bakarra izan da, larunbateko txirringularen lasterketarekin batera

ZIORDIA

Gainontzeko herrietan bezala, Ziordian ere ez da festarik izan aurten. Hala ere, Ziordiko Udalak ekitaldi sinboliko bati eutsi nahi izan zion. Horregatik, herriko adinduenei eta joan den urtean jaiotakoei opari bana eman zieten asteazken eguerdian egindako ekitaldian. Alde batetik, herriko gizon-emakume adinduenak diren Angeles Martinezek (ezin izan zuen egon) eta Placido Mendozak lore sorta bana jaso zuten. Eta gauza bera Ziordiko bikote zaharrena osatzen duten Teodora Arregik eta Placido Mendozak.

Bestalde, 2020an jaiotako herri bizi edo gurasoak bertakoak dituzten hamar umeri festetako

herriko ttattarra oparitu zien udalak. Honakoek jaso zuten: Adur Otsoa Aldanondo, Aimar Perez Igoa, Alejandro Martin Agirre, Alicia eta Elena Luque Agirre, Amaieur Mendinueta Etxarri, Intza Razkin Arbizu, Kepa Azpiroz Arakama, Valeria Sanchez Gonzalez eta Vega Lopez de Goikoetxea Lizana.

Bestalde, udalak udarako kultur programazioa du eta horretara 10.000 euro bideratu ditu. Egitarau horren barruan, besteak beste, Xabier Artieda, ipuin kontalaria, mariatxien eta Iheskide taldearen kontzertuak izan dira besteak beste. Domekan Haize Berriak bandak kontzertua eskainiko du, 19:00etan, plazan.



Adindu omenduak.



Domekan herrian lasterka egin zutenen talde argazkia. @FIMOFITO

Elkartasun lasterketa birtuala, eta herrian

Ziordia running taldeak Paris 365 jatetxearen aldeko elkartasun lasterketan 1.335 euro lortu zituen

ZIORDIA

Gizarte ekimen baten aldeko elkartasun lasterketa antolatzen eskarmentua du Ziordia running taldeak. Aurtengoa, domekakoa, Paris 365 jatetxe sozialaren aldekoa zen. Pandemiagatik, bigarren urtez jarraian lasterketa modu birtualean egin zen. Parte hartzaileek www.migranodearena.com webgunearen bidez eman zuten izena, gutxienez 5 euroko ekarpena egin. Hala, lasterketa birtual horretan Valladolid, Burgos, Madril, Katalunia, Praga eta Euskal Herrian izan ziren korrikalariak. Gainera, hamabost bat korrikalari bildu ziren Ziordiko kale eta bideetan lasterka egiteko. Guztiek egindako kilometroak ELA gaitzari ikusgarritasuna emateko KMS x ELA ekimenari batu zaizkio.

Domekakoa ez da izan aurten Ziordia running taldeak antolatu duen elkartasunezko ekinem

bakarra. Beste bi ere izan dira aurretik. Udan izan da azkena. GNAO1 gaixotasun arraroa duen Markel Carmona Lesaka 14 urteko gaztearen aldeko elkartasun zozketa antolatu zuen. Ekimen horren bidez urnietarraren familiari 6.500 euro emanen dizkiote, gazteak behar dituen terapiak garatzeko. Domekan Ziordian izan ziren. Talde ziorriarraren aurtengo elkartasun jarduna udaberrian hasi zen, Rett sindromea duen San Adriango 6 urteko Bea Hernando Saez neskatoaren aldeko zozketarekin. Orduan 12.170 euro lortu zituzten zozketarako txartelak salduz. Eguneroko bizitza errazteko tresnak erostera bideratu zuten dirua gurasoek. Talde antolatzailearen izenean, Jose Ramon Ramirezek eskerrak eman zizkien parte hartzaile guztiei, sariak eman zituztenei eta zozketa txartelak erosi zituztenei.

CONSTRUCCIONES ALZATE s.l.

ALZATE ERAIKUNTZAK s.l.

Zubezia 21, Altsasu
Tel. 948 562 745 · Fax 948 467 600
www.construccionalazate.com

BILTOKI
TABERNA · JATETXEA

Egun hauetan bokatak aukeran BARRAN

Telefono berria:
948 562 348 · Altsasu

Zure edari banatzailea!

Hijos de Goikoetxea

Tel. 948 467 317 · 696 979 279 · Geltoki auzoa 11 · ALTSASU

GUAIXE
661 523 245

Gizarte larrialdirako etxebizitza begiz jota

San Pedro auzunean Altsasuko Udalak bi etxebizitza ditu. EH Bilduk haiek zaharberritu eta alokairuan jartzea proposatu zuen. Udalak erabaki du Gizarte Zerbitzuen eskaera bere egitea eta bat gizarte larrialdi kasuetan erabiltzea. Bestea saldu egingen da

ALTSASU

Herrian alokairuko etxe premia dagoela argudiatuta, EH Bilduk, mozio bidez, proposatu zuen San Pedro auzunean Altsasuko Udalak dituen bi etxebizitzak zaharberritzea, eta, behin hori eginda, alokairuan jartzea. Etxebizitza horiek alokatzeko udalak baremoa osatu beharko lukeela gaztigatu zuen EH Bilduk. Horrekin batera, koalizioak alokairu taula bat osatzea eskatu zuen. Haren oinarria soldata gordina eta biziko liratekeen pertsona kopurua lirateke. Mozioa ez zen onartu.

Javier Ollo Martinez alkateak, azaldu zuenez, "nahiago genukeen mozioa baino Hirigintza Batzordean lantzeko testua izan balitz". Hori argitu ondoren, alkateak azaldu zuenez, "Gurutze Gorriaren egoitza izandako etxebizitzak urtetan ez du erabilerarik izan eta hondatuta dago. Bestea okupatuta dago eta zigor auzibidea zabalik dugu hura berreskuratzeko". Alkateak jakinarazi zuenez, Gurutze Gorriaren egoitza hartu zuen etxebizitza enkante bidez saltzea nahi luke Geroa Baik. "Ez da mantentze lanik egin eta eskatzen duen zaharberritze lana oso handia da". Salmenta horren kontra agertu zen EH Bildu. Koalizioak bozeramaile Javier Paz Miñok esan zuenez,



Gurutze Gorriaren egoitza hartu zuen etxebizitza.

"ez dugu uste herriarendako onadenik ondasunak saltzea". Hura zaharberritzearen alde eta udalak alokatzearen aldeko jarrera berretsi zuen.

Beste eraikinaren jabetza 2018an berreskuratu zuen udalak. Ollok azaldu zuenez, "2019an Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetik udalari proposatu zitzaion etxebizitza hori gizarte larrialdi egoeretan erabiltzeko bideratzea eta udalak kudeatzea". Okupazioa bukatu eta udal jabetzara bueltatu ondoren, "hirigintza batzordean, Gizarte Zerbitzuekin batera,

egitasmoa nola gauzatu aztertu ko dela aurreratu zuen Ollok, "egokienak haiek kudeatzea litzateke", gaineratu zuen.

Alokairuzko etxebizitza eskaerari erantzuna emateko, alkateak gogorarazi zuen Nafarroako Gobernuarekin hizketan ari direla babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko Galtzada kaleko 6. zenbakian. Nasuvinsa enpresa publikoak egingen lituzke eta alokatu egingen lirateke. "Eskaerarekin bat egiten duen kopurua egingen luketela esan ziguten", argitu zuen alkateak.



Altsasuko dendeak asteburuan merkealdiko salgaiak kalera atera zituzten.

Herrian kontsumitzeko kanpaina berria martxan jartzear da

Ostalaritzako tonbola kanpaina izena emateko epea hilaren 15era arte dute zabalik

ALTSASU

Herrian bertan erosketak egitea sustatzeko helburuz eta herriko ekonomiari bultzada eman eta herri bizia lortzeko helburuz, Altsasuko Udalak Altsasuko Dendarien Elkartearekin batera Ostalaritzako tonbola kanpaina martxan jarriko du. Horretarako, lehen lehenik, herriko ostalaritza establezimenduek kanpainarekin bat egiten dutela adierazi beharko dute. Hori egiteko bidea www.altsasu.eus udal webgunean dagoen galdegia erantzutea da. Eta hilaren 15erako erantzun beharko dute.

Bat egiten duten dendetan 20 eurotik gorako erosketa bakoitzeko bezeroak tonbolako txartel bat jasoko du. Saritutako txartelek 10 euroko balioa izanen dute, ekimenarekin bat egin duten Altsasuko ostalaritza establezimenduetan kontsumitzeko aukera ematen dutena. Uda-

lak eta Altsasuko Dendarien Elkarteak jakinarazi dutenez lastailaren 1ean hasiko dira tonbolako txartelak banatzen eta saria eskuratzen duten zoriareko bezeroek haiek azaroaren 30era arte gozatzeko aukera izanen dute. Tonbolarekin bat egiten duten establezimenduak kanpainaren kartela agerian izan beharko dute.

Kanpainaren sustatzaileek jakinarazi dutenez, 5.000 tonbola txartel banatuko dituzte eta haietako 1.400ek saria izanen dute. Gaineratu dutenez, "txartelak banaka edo metatuta trukatatu ahal izango dira. Nolanahi ere, osorik gastatu behar dira, ez baita dirurik itzuliko". Azken jakinarazpen bat ere egin dute: "ezin izango dira tabakoa edo loteria erosteko erabili, ezta apustuak egiteko ere". Udalak kanpaina garatzeko 17.000 euro bideratu ditu.

AUTOMOBILEN ASEGURUAK

GELDIEZINAK

%50 — 12 HILABETETAN
ORDAINTZEKO PLANGINTZA

2 HILABETE DOHAIN
ONGI GIDATZEAGATIK

ARTEKO DESKONTUA

MAPFRE 948 563 354 | jjmazpr@mapfre.com
San Juan 48 · ALTSASU

PORTUKO

okidengia

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988 | Urdiain: 948 563 763

Txalaparta

Erabili musukoa eta mantendu distantziak

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

Andian haize erroten poligonoak jartzearen kontrako martxa

Larunbatean, 09:30ean, Lezaundik abiatuta. 9,4 km-ko ibilaldia da. Urbasa-Andia bizirik taldeak deitu du

SAKANA

Andiaren mendiaren hegoaldean haize erroten poligonoak egiteko bi tramitazio jendaurrean ditu Nafarroako Gobernuak. Iturgoiengo Trinitate ermitaren inguruan, Iturgoien eta Lezaunen jarri nahi luketen poligono eolikoak 180 metroko altuerako eta 70 metroko hegalak dituzten 13 haize errotez osatuta egonen litzateke, 52 megawatteko potentzia instalatua. Haize errotetako batzuk Urbasa-Andia natur parkearen mugatik 200 metrora egonen dira.

Proiektuaren arabera, haize erroten poligonoek sortutako argindarra sare elektriko nagusira eramateko 25 km-ko argindar linea berria eginen litzateke mendiaren hegoaldean. Lineak Lezaun eta Orkoiaren lotuko litzateke, Gesalatz, Etxauri eta Oltzan barna. Linea horrek 3,24 km natur parke barruan eginen luke. Sustrai Erakuntza fundazioak jakinarazi duenez, "45 hektarea inguruko landaretza kaltetuko litzateke, besteak beste, poligonoak egiteko pistak zabaldu beharko dituztelako. Proiektuaren Ingurumen Eraginaren Azterketan hautemandako hegazti



Lezaungo proiektuaren irudikapena.

faunaren artean putreak, arrano beltza, sai zuria, belatz handia eta ugatza daude, besteak beste". Fundaziotik gaztigatu dutenez, argindar linea berriak sortuko litzatekeen elektrizitatea baino gehiago eramateko aukera emanen luke. Horren atzean beste haize erroten poligono bat jartzeko nahia ikusi du fundazioak. Bestetik, natur parketik gertu dagoen beste haize erroten poligonoa Goñin eta Etxaurin jarriko litzateke. Dozena bat aerosorgailu jasotzen du Kresada proiektuak. Biak Green Capital Power enpresak sustatu ditu.

DUELA 25 URTE...



Orritz, Alemanian dantzari

Bigarren urtez jarraian, Orritz dantza taldeak Alemaniako bidea hartu zuen. Kleven hilaren 14an eta 15ean Vianako printzearen eta Kleveko Agnesen arteko ezkontza oroitzeko ekitaldiak egin ziren. Besteak beste, ezkontza desfilean parte hartu zuten Irurtzungo dantzari eta musikariek. Dantza erakustaldiak ere Lingenen egin zituzten, bertako Alde Zaharreko festetan. Gainera, Kolonia eta Amsterdam bisitatzeak aukera izan zuten.

Presoen etxerako bidea martxan jartzea eskatzen

Gaur, 19:30ean, Altsasun manifestazioa eginen da. Bihar, 10:30ean, Arbizu eta Aulestiren arteko erronka jokatu da eta Etxarri Aranatzan, 11:00etan, '1.231 km beyetz' erronka osatuko dute

SAKANA

Izan bidea dinamikaren barruan, Sarek sakandarrak eskualdeko manifestazioan parte hartzea deitu ditu. Gaur izanen da Altsasun, 19:30ean, Zumalakarregi plazatik abiatuta. Mobilizazioak *Ibilian ibilian etxerako bidean* leloa izanen du. Saretik azaldu dutenez, "atzean utzi nahi ditugu legea eskubideak urratzeko erabiltzen ziren garaiak. Atzean utzi aurrera egin nahi dugulako, aurrera egin presoak etxean izan arte. Eta, horretarako, denak behingoz, etxerako bidean jarri behar ditugu". Aldarrikapen hori zabalduko dute Altsasun.

Bestalde, bihar goizean bierronkei aurre eginen diete Arbizun eta Etxarri Aranatzan. Arbizuarren eta aulestiarren arteko erronka 10:30ean hasiko da. Herriko Berriango ermitara igo eta jaistean datza erronka. Herri bakoitzeko korrikalari batek eginen du gorako bidea eta besteak jaitsierako. Korrikalariak iritsi ondoren, 12:30ean, Sarek antolatutako Nafarroako Itzuliaren aurkezpena eginen da, plazan. Bukatzeko, 13:00etan, *Ibilian-ibilian, denak itxaa!* lelopean kontzentrazioa eginen dute plazan.

Etxarri Aranatzan joan den urteko erronka errepikatuko



Beriainerraino eramaten dute aldarrikapena bihar. ARTXIBOA

dute, eta sei preso etxarriarrak dauden espetxeetarako distantzia eginen dute. Horretarako, oinez, bizikleta estatikoan eta lasterka 1.231 km osatzea izanen da erronka. Gutxienez 80 pertsona ariko dira erronka osatzen, 11:00etatik 19:00etara ariko dira bere saioa egiten. Plazako zabalgunean ariko dira. Hura bukatzean auzatea eta kontzentrazioa eginen da.

Nafarroako itzulia

Sarek Nafarroan presoen etxeratzaren aldeko mezua zabal-

tzeko herrialdea zeharkatuko duen martxa antolatu du, irailaren 29tik lastailaren 2ra. Lesakatik abiatuko da Berriozarrera iristeko. Helburua da, gelditu gabe, 72 ordutan, 352 kilometro osatzea, oinez. Antolakuntzak 74 errelebotan egitea aurreikusiko du. Horretarako, Nafarroako herri edota auzoek 5 km-ko ibilbide zatiak osatu beharko dituzte. Errelebo bakoitzean gutxienez 10 pertsona aritzea nahi lukete Sarekoek. Sakanara hilaren 30ean iritsiko da, eta Irurtzun eta Lizarraga arteko bidea eginen du.

Bigarren hiru hilekoan, 64 kontrol zenbatu ditu Ospak

Ospak egindako zenbaketaren arabera, urtearen lehen erdian 190 kontrol izan dira herrian


ALTSASU

Errepresioaren kontrako Ospa mugimenduak kartelen bidez jakinarazi duenez, apirila eta ekaina artean 64 kontrol zenbatu dituzte herrian. Haietatik 35 (%54,68) Guardia Civilak eta 25

(%39,06) Foruzaingoak jarritakoak direla jakinarazi du. Ospa mugimenduko kideek estreinakoz bere zenbaketetan Altsasuko Udaltzaingoa sartu dute, eta haiek lau kontrol (6,25) egin dituztela azaldu du.

Kontrolen kokapenari dagokionez, errepresioaren kontrako mugimenduko kideek jakinarazi dutenez, 21 (%32,81) herriko kaleetan izan ziren, 19 (%29,68) Iruñerako irteeran, 13 Donostiarako irteeran eta 11 Gasteizera-koan. Ospa mugimenduak urteko lehen hiru hilekoan 126 kontrol zenbatu zituen, bigarren hiru hilekoan 64 batuta, aurtengo lehen sei hilabeteetan 190 kontrol zenbatu dituzte Errepresioaren kontrako Ospa mugimenduko kideek.

Etxebizitzak herrika



Ohiko bizilekua da dauden etxeen %76,46

Ibarrean dauden 10.521 etxeetatik 8.044 ohiko bizilekua dira, eta 2.477 (%23,54) etxe hutsak edo bigarren etxebizitza dira. Ohiko etxebizitzetan, batez beste, 2,52 sakandar bizi dira; baina guztiak kontuan hartuz gero, kopurua 1,93ra jaisten da

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Etxebizitza Parkearen Estatistikaren arabera, Sakanan 10.521 etxebizitza zeuden 2020ko abenduaren 31n. Haietatik 8.044 etxebizitza nagusi gisa erabiltzen dituzte sakandarrek, %76,46. Aurreko urteetan gertu ibili arren, 2020an, estreinakoz, Sakanan 8.000 etxe baino gehiago ziren lehen bizitza. Izan ere, 2019an baino 57 gehiago zenbatu zituzten, %0,7ko hazkundera.

Etxebizitza ohiko bizileku gisa erabiltzeko ibarreko portzentajea Nafarroakoaren 1,65 puntu azpitik dago. Izan ere, herrialdean 324.804 etxebizitza zeuden eta haietatik bizileku nagusia 253.718 (%78,11) ziren.

Nafarroako Estatistika Institutuak, Nastatek jakinarazi duenez, 2019tik 2020ra herrialdeko etxebizitza parkea %0,6 hazi zen. Sakanan 32 etxe gehiago zenbatu zituzten epe horretan,

hau da, %0,3ko hazkundera. Aurreko hiru urteetan ibarreko etxebizitza parkearen hazkundera %0,1ekoa izan zen.

Sakanako 2.477 etxe hutsik daude, edo tarteka bigarren etxebizitza gisa erabiltzen dira. Halako bizitokiak Sakanan %23,54 dira; Nafarroan, berriz, 71.086 (%21,88) dira. Halako etxeen kopuruak aurreko bost urteetan Nafarroan beherako joera izan zuen; azken urtean,

ordea, %0,2 hazi zen. Sakanan 0,31 jaitsi zen.

Herriak

Datuek agerian uzten dutenez, populazio txikiagoa duten udalerrietan etxebizitza huts edo bigarren etxebizitza gehiago daude. Zerrendaren buruan Ergoiena (%44,37) eta Arruazu (%43,84) daude. Bizitzen herena pasa hutsik edo bigarren erabilerarekin dute Iturmendik (%38,78) eta Irañeta (%35,71). Eta herenetik gertu daude Arakil (%32,81), Uharte Arakil (%32,41) eta Olatzagutia (%30,88). Herri horiek dira, bertako arkitekturen hobekien eutsi diotenak, baina horrek berak erakintza zaharberritzea asko zailtzen du inbertsio handiak eskatzen baititu. Ondorioz, etxebizitzarako sarbidea ere zaildu egiten da.

Bestaldean daude industria handia hartu eta herria erabat

eraldatu ziren herriak, loturagune direnak eta populazio handia dutenak. Iruztunen etxebizitzen %10,55 dago hutsik edo bigarren erabilerakoa da. Iruñerako gertutasunak ere laguntzen du etxeak lehen etxebizitza izatea. Altsasun %17,27 dira mota horretako etxeak. Gainontzeko herrietan kopuruak handiagoak dira: Etxarri Aranatz %23,52; Arbizu %25,24; Ziordia %26,7; Urdiain %27,5; Lakuntza %28,05 eta Bakaiku %28,92.

Sakanako etxebizitza eta populazio datuak elkartuz gero, ibarrean etxebizitza nagusi diren 8.044etan 2,52 pertsona bizi dira bataz beste. Baina ibarreko etxebizitza parke guztia kontuan hartuta, bizitza bakoitzean 1,93 pertsona bizi dira bataz beste, 0,59ko alde. Bi datuen arteko diferentzia zenbat eta handiagoa izan, orduan eta etxe huts gehiago daude udalerrian: Arruazu 2,59 eta 1,45 (1,14 alde), Ergoiena 2,34 eta 1,3 (1,13) eta Iturmendi 2,74 eta 1,68 (1,06). Atzetik dituzte Irañeta 2,68 eta 1,72 (0,96), Arakil 2,5 eta 1,68 (0,82), Uharte Arakil 2,49 eta 1,68 (0,81), Olatzagutia 2,48 eta 1,71 (0,77), Lakuntza 2,58 eta 1,85 (0,73), Bakaiku 2,48 eta 1,76 (0,72), Arbizu 2,79 eta 2,09 (0,7), Urdiain 2,53 eta 1,84 (0,69), Etxarri Aranatz 2,51 eta 1,92 (0,59) eta Ziordia 2,16 eta 1,58 (0,58). Beste muturrean daude Iruztun 2,6 eta 2,32 (0,28) eta Altsasu 2,48 eta 2,05 (0,43).

ESTREINAKOZ IBARREKO 8.000 ETXE BAINO GEHIAGO LEHEN ETXEBIZITZA ZIREN 2020AN

AMAYA OKINDEGIAK
ESKERTU NAHI DIZU
EGUNERO GUREKIN EGOTEA.
BIZITZEN ARI GAREN EGOERA ZEIN DEN JAKITUN,
GURE ESKURA DAUDEN SEGURITASUNEKO
NEURRI GUZTIAK BETETZEN ARI GARA.

Zurekin 1964tik eta orain inoiz baino gehiago.

ZUREKIN 1964 GEROZTIK

Amaya

OKINDEGIA

🍞 | 🍰

Eskerrik asko!

ALTSASU
678 323 403
• Iruña Hiribidea, 48
948 468 026
Zumalakarregi Plaza,3
670 389 017
• San Juan Kalea, 50
948 562 185
• Otadiko Kristo Deuna, 19

UHARTE-ARAKIL
691 83 41 36
• Mandikoa, 3

VITORIA-GASTEIZ
• Postas, 33
945 148 368
• Arriagako Atea, 12

ETXARRI-ARANATZ
948 461 660
• Kale Nagusia, 4

OLAZTI
948 468 755
• Orreaga Kalea, 1

ARAI
945 314 572
• Andoni Urrestarazu, 3



Uhartearrak autobusetik jaitsi berritan. ARTXIBOA

Departamentuak autobus zerbitzua egokitu du

Gobernuak autobus bidezko bidaiarien zerbitzua emateko deialdia egin du, aldaketak sartuz

SAKANA

Nafarroako Gobernuak ematen ditu autobus zerbitzu kontzesioak. La Burundesak, Condak, Leizaranek eta La Mugioarra enpresek Sakanan dituzten kontzesioak bukatuta daude. Horregatik, Lurralde Kohesiorako Departamentuak Iruñea, Altsasu eta Gasteiz arteko linearen kontzesioa emateko deialdia egin du; proposamenak egiteko epea bihar despedituko da.

Populazioaren mugikortasun premiei erantzuteko, foru administrazioak egindako deialdian autobus eskaintza bi zerbitzu motatan egituratu du: ardatza diren zerbitzuak eta eskaera bidezkoak. Lehenen artean daude Iruñea eta Gasteiz edo Iruñea eta Ziordia arteko ibilbidea egiten dutenak. Asteaz 16 bat zerbitzu aurreikusi dira. Bestetik, eskaera bidez funtzionatuko duten bi autobus linea

daude. Lehenik, Hiriberri eta Ihabar ez beste, Arakilgo gainontzeko herriak Irurtzunekin lotuko dituenak. Bigarrenik, Ergoiena eta Lizarragabengoa Altsasarekin lotuko dituenak. Azken bi horietan autobus zerbitzu hori asteen hiru egunetan izanen da indarrean.

Egituraketa hori egitean, Lurralde Kohesio Departamentuak, lehenik, herritarren intereseak diren zerbitzuak dituzten eskualde buru jo ditu Irurtzun eta Altsasu. Gainera, hiriburura iristea bermatu nahi izan du, horregatik, autobus batetik bestera aldatzeko sistema ezarriko da arakildar, ergoendar eta lizarren gotarrendako. Horretarako, plazak bermatu beharko dira eta hori txartel bakarraren salmentaren bidez egiten da. Gainera, hainbat konpainiak ordutegi berdintsuetan zerbitzuak eskaintzea saihestu nahi da.



Eskaerendako pankarta berria

Pentsiodunen mugimenduak deituta, kontzentrazioak egiten dira Altsasun astelehenero. Aste honetan bere aldarrikapen ezagunenak jasotzen dituen pankarta mustu zuen. Mugimenduak kezka hartzen ditu Toledoko Itunak pentsio sistemaren erreformaren

inguruan sortzen dituen albisteak. KPI eguneratzea bermatuta ere, gabezia handiak salatu dituzte: jubilazioa atzeratzea bulkatzen du, alde aurretik jubilatzea zigortzen du eta jasangarritasun faktorea belaunaldien arteko ekitate mekanismo bategatik ordezkatzeko du".

Hydrok bi ziurtagiri eskuratu ditu

Aluminium Stewardship Initiativeren (ASI) bi estandar lortu ditu: Eginkizuna Betetzearena eta Zaintza Katearena. ASIren helburua da aluminioaren balio katean jasangarritasunaren eta giza eskubideen printzipioak bultzatzea

IRURTZUN

Aluminioa estrusioan aritzen den eta Irurtzunen lantegia duen Hydro enpresa multinazionalak jakinarazi duenez, bere penintsulako lau lantegiek jasangarritasunaren eta giza eskubideen printzipioak aluminioaren balio katean integratzeagatik aitortza jaso dute. Eta, beraz, Aluminium Stewardship Initiative (ASI) enpresaren estandarren arabera gizarte, ingurumen eta etika ziurtagiria du. Hori lortzen lehena izan da penintsulan.

Hydrori lehen aldiz emandako Zaintza Katearen estandarrik ASI erakundeak ziurtratutako aluminioarako zaintza kate bat sortzeko baldintzak ezartzen ditu. Instalazioak eta haien praktikak ziurtratuta daudela ez ezik, prozesatzen duten metal fisikoa ere ziurtratuta dagoela esan nahi du, ASIki ziurtratutako iturrietatik lortzen denean.

Bestalde, ASIki joan den urtean Performance Standard edo jar-



Irurtzungo lantegia.

duera estandarra eman zion Hydrori. Estandar horrek 59 printzipio eta ingurumen irizpide ebaluatzen ditu aluminioaren balio katean, berotegi efektuko gasen emisioak, hondakinen kudeaketa, materialen adminis-

trazioa, biodibertsitatea eta giza eskubideak barne.

"Estandar horiek lortzea eta ASI industriaren ekimen global batek aintzat hartzea funtsezkoa da gure jasangarritasun agenda betetzeko. Gainera, gure bezeroei balio kate osoan modu ardutsuan lortzen eta ekoizten diren aluminiozko produktuak eskaintzen dizkiegula dokumentatzen laguntzeko balioko du", azpimarratu du Ana Vazquez presidenteordeak. "Ziurtagiriek posizio hobean jartzen gaituztela uste dugu, hornitzaileak, kolaboratzaileak edo bezeroak elkarrekin lan egitera bultzatzeko, etorkizuneko belaunaldientzat modu jasangarriagoan", gaineratu du. Ziurratu dutenez, bi ziurtagirik enpresa "iraunkortasunaren bila egiten ari den lana indartzen dute." Urte hasieran, konpainiak iragarri zuen aluminioa estrusatzeko bere 42 operazioak ASI Eginkizunaren Estandarraren arabera ziurtratuta zeudela.

ZURE PUBLIZITATEA
HEMEN



Informazio gehiago:
948 564 275 | 661 523 245
publi@guaixe.eus
guaixe.eus/publizitatea/





Nafarroa, Araba, Lautada eta Sakanako ordezkariak Zamartzen egindako bilera. SGA

SAKANA

Ibarreko etorkizuneko mugikortasuna nolakoa izanen den definitzeko oinarriak jartzen ari dira gaur egun Sakanako Mankomunitatean. David Oroz Alonso lehendakariak esan duenez, "erronka Sakana osorako mugikortasun iraunkorreko eredu bat egitea da, Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean, eta, nola ez, guk hemen sortu ditugun tresnak balioetsiko ditugu: udalen arteko lankidetzak, Sakanako Garapen Agentziaren lidergoa, Sakanako eragileen parte hartzea eta Dinabide proiektuaren inplikazioa". Orozek gaineratu duenez, "lankidetzak horri esker, gure garapenerako ezinbestekoak diren bi esparru batuko ditugu: mugikortasuna eta jasangarritasuna".

Sakanako Garapen Agentziako gerente Iker Manterola Matxainek azaldu duenez, "hirietan erraz ikusten da mugikortasun ereduak bateragarriak eta era askotakoak izan behar dutela. Autoz ibiltzea hirietan gero eta zailagoa izanen da; alternatiba bizikleta, patinetek eta garraio publikoa dira. Herrietan, berriz, ereduak sortu beharko ditugu. Tokian tokikoa aztertu beharko dugu eta esperimentatu beharko dugu".

Eredu berria

Norabide horretan ibarreko erakundea bi ildotan ari da lanean. Batetik, beste mugikortasun eredu bat sortu nahi du.

Etorkizuneko mugikortasunaz

Mankomunitateak eta gobernuak hitzarmena sinatu dute mugikortasunaren diagnostikoa egiteko, 'KudeaGo' proiektu pilotua garatzeko eta Europako proiektu bat diseinatzeko. Ibarra zeharkatuko duen bizikletendako ibilbidea lantzen ari dira

Horregatik, Orozek eta Lurralde Kohesirako Departamentuko Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendari Nagusi Berta Miranda Ordoibek lankidetzak hitzarmena sinatu zuten garilaren 29an. Foru administrazioak 40.000 euro emanen dizkio Mank-i Sakanan mugikortasun iraunkorra bultzatzeko jarduerak egiteko.

Alde batetik, Sakanako mugikortasunaren diagnostikoa egingen da, eta ondorioak aterako dituzte egin beharreko ekintzak zehazteko. Hortik sortuko da etorkizuneko Sakanako Mu-

"LANKIDETZARI ESKER MUGIKORTASUNA ETA JASANGARRITASUNA BATUKO DITUGU"

gikortasun Iraunkorreko Plan Bateratua: eskualdeko udal guztien helburuak, irizpideak eta estrategiak bateratuko dira, automobilean oinarritutako egungo ereduaren erronkei erantzuteko.

Era berean, hitzarmenak ezartzen du *KudeaGo* proiektu pilotua sustatuko dela, sakandarren artean automobilezko ibilbideak partekatzea ahalbidetuko duen aplikazio bat garatzean datzana. Dinabiderek lankidetzan egingen da, eta Sakana osoan ezartzeko plan bat egingen da. Proiektu aitzindari horren emaitzek beste eskualde eta ingurune geografiko batzuetan duen eragina eta erabilgarritasuna neurtzeko balioko dute.

Aldi berean, Sakanako mugikortasun zerbitzuak ematen dituzten autobus enpresa, taxi, gobernu eta bestelako eragileekin

batera, eredu berri baten oinarriak finkatuko dira, eta lurralde lankidetzarako Europako proiektu bat egingen da, datozen urteetan Sakanako mugikortasun jasangarria garatzen jarraitzeko finantzaketa funtsak bilatzeko. Bertan proiektuarekin egin den bezala, European antzeko errealitateak duten eskualdeekin batera kontinente mailako proiektua egin nahi da.

Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendari Nagusi Mirandak adierazi duenez, "mugikortasunaren alorrean benetako eraldaketa lortzea eta mu-

"MUGIKORTASUN BERDERANTZ AURRERA EGITEKO GAI IZATEA FUNTSEZKOA DA"

gikortasun berderantz aurrera egiteko gai izatea funtsezkoa da Nafarroaren orainerako eta etorkizunerako. Administrazio guztiok batera lan egin behar dugu erronka hori lortzeko; izan ere, erronka hori erabakigarria da Sakanako biztanleak finkatzeko". Gaineratu duenez, "mugikortasun seguru eta iraunkorrerako estrategiak funtsezkoak dira Nafarroako jarduera ekonomiko eta sozialaren funtzionamendurako".

Mugikortasun aktiboa

Ibilbide zikloturista sustatzea da Mank-ek mugikortasunaren arloan duen beste ildo. Ibarreko Galtzada Bideak edo Donejakue bideak Irurtzun eta Ziordia lotzen ditu. Azpiegitura egokia da sakandarrek aisialdian erabiltzeko, ibarrean batetik bestera mugitzeko edota turismorako. Txirrindulariendako eta oinezkoendako segurua den bide sare baten ardatza izanen da hori.

Manterolak azaldu duenez, "Nafarroako Gobernuak 2022-2030 Mugikortasun Aktiboko Plan Zuzentzailea egiten ari da. Herrialdea artikulatuko duten bide nagusiak hor daude, esaterako bide berdeak. Eta Sakanako bidea ere sartu dute". Izan ere, Irurtzunen Plazaola bide berdeak eta Eurovelo 1 bizikleta sareak bat egingen dute. Azken hori Norvegia eta Portugal lotzen dituen Europako bizikleta ibilbidea da. Ibilbide hori egiten duten txirrindulariek aurrera egiteko ezinbestekoa izanen dute Sakana zeharkatzea, bidea Araban barrena segitzeko.

Arabako lotura zehazteko eta lankidetzak sustatzeko, Arabako Foru Aldundiko, Nafarroako Gobernuak, Arabako Lautadako eta Sakanako turismo eta mugikortasun sailtako ordezkariak bilera egin zuten garilaren 29an Zamartzen.

Mugikortasun arloa landu eta turismo produktuak zehazteko pausoak eman zituzten bilera hartan. Sakanako Garapen Agentziako gerenteak esan duenez, txirrindulariendako ibilbidearen proiektua urtea despeditu aurretik egingo izanen da. Hura idatzeko 41.322,31 euroko aurrekontua dute. Proiektua eskutan izatean jakinen dute hura gauzatzea zenbat balio duen. Lanak egiteko ibarreko erakundeek dirulaguntzak eskatu beharko dituzte.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEN EGURDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 10

UHARTE ARAKIL Gazteendako Escape Rooma.

12 urtetik gorakoendako. Antolatzaileak: Sakanako gizarte zerbitzuak. Izena ematea itxita. Arratsalde, udaletxean.

ALTSASU Ibilian ibilian etxerako bidean Sare herritarren eskualdeko manifestazioa. 19:30ean, Zumalakarregi plazan.

ETXARRI ARANATZ Xabier Artiedaren *Everybody needs... heroes!* ikuskizuna. 20:00etan, plazan.

LARUNBATA 11

LAKUNTZA Aralarko trikuharriak eta paisaiak. 10:00etan, Guardetxeko aparkalekutik.

ARBIZU Ibilian ibilian etxerako bidean. Herrien arteko erronka: Arbizu vs Aulesti. Bikotekako lasterketa. Ondoren, Nafarroako itzuliaren aurkezpena eta kontzentrazioa. 10:30etik aurrera, plazatik.

UHARTE ARAKIL Motxila 21 taldearen aldeko haurren lasterketa solidarioa. 11:00etan, pilotalekuan.

ETXARRI ARANATZ Ibilian ibilian etxerako bidean. Beyetz 1231 km erronka. 11:00etatik 19:00ak arte, plazatik.

UHARTE ARAKIL Motxila 21 taldearen aldeko Zumbathoi Solidarioa. 12:00etan, pilotalekuan.

OLAZTI Los hermanos Infoncundibles konpainiaren *Diabolo Clasic Metal*

ikuskizuna.

19:00etan, futbol pistan edo frontoian (eguraldiaren arabera).

IRURTZUN Tenpraren guarpena film dokumentalaren emanaldia.

19:30ean, Pikuxarren.

IGANDEA 12

IRURTZUN Irurtzungo eta Arakilgo Azoka.

10:00etatik 14:30era, plazan.

LAKUNTZA Orientazioa Aralarko magalean.

10:00etan, Guardetxeko aparkalekutik.

ALTSASU XCII Altsasu Txirindularitza Proba.

Afizionatu mailako lasterketa. 10:00etan, Kirol Elkartearen egoitzaren paretik.

ZIORDIA Haize Berriak bandaren kontzertua.

19:00etan, plazan.

ASTELEHENA 13

ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.

12:00etan, udaletxearen parean.

ETXARRI ARANATZ Porrotz eta Marimotots. Sarrera: 3 euro.

17:00etan eta 18:30ean, kultur etxean.

ASTEAZKENA 15

ALTSASU Intxostiapunta gazte gunearen ate irekien jardunaldiak.

18:00etatik 20:00etara, Intxostiapuntan.

OSTEGUNA 16

ALTSASU Intxostiapunta gazte gunearen ate irekien jardunaldiak.

18:00etatik 20:00etara, Intxostiapuntan.

ZORION AGURRAK



Lur Azpiroz Andueza 6 urte!! Zorionak potxola familia guztiaren partez! Maite zaitugu!



JAIOTZAK

- **Denisa Covaci Fernandes**, uztailearen 26an Urdiainen
- **Kaia Rekalde Berastegi**, uztailearen 29an Arbizun
- **Leo Iturralde Maestre**, abuztuaren 31n Etxeberrin

EZKONTZAK

- **Jon Etxarri Galarza eta Nuria Zia Soto**, uztailearen 17an Urdiainen


HERIOTZAK

- **Jesus Lopez de Goikoetxea Irigoien**, irailaren 1ean Urdiainen
- **Luciana Galarza Lopez de Goikoetxea**, irailaren 3an Urdiainen
- **Milagros Mugika Martinez**, irailaren 4an Ziordian
- **Joxepa Larunbe Larunbe**, irailaren 7an Lakuntzan
- **Juan Jose Andueza Zufiaurre**, irailaren 8an Urdiainen


INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 10




Larunbata, 11



Igandea, 12



Astelehena, 13



Egun on Sakana
Goizero 10:00 | Errepikapena 14:00

igo bolumena +

beleixe 107.3 FM



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak


www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK

Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea



ESKELA




Juan Jose Andueza Zufiaurre



Azken, dantza hau, Baina, gaurko xedia
Maitia, zurekin... Ezin daike betia!...
Nahi zinduzket Badakit, nik ere,
Eraman nerekin... Bihar dela joaitia!...

Zure familia

ESKELA



Juan Jose Andueza Zufiaurre



Isildu dira zure bihotz taupadak
Baina inoiz baino
ozenago entzungo dugu
gitar hotsez lagundutako
zure ahots gozoa

Domingon itxeko ilobak


ESKELA

Juan Jose Andueza Zufiaurre

"Juan Joxe elektriko bezain langile,
pizinetako zaindari.
Mila esker egindako lanagatik.
Agur eta ohore"

Aitziber elkarte

ESKELA




Pello Goya Garziandia

Ez zaitugu inoiz ahaztuko

Zure kuadrilla

OROIGARRIA



Guadalupe Gares Artola

II. urteurrena



Zure familiak ez zaitu inoiz ahaztuko

Etxekoak

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOA

LAN ESKAINTZAK

Altsasuko Udalean aldi baterako administrari lanpostua betetzeko oposizioa: Giza baliabideen eta Estatistikaren Arloan C mailako ofizial administrari lanposturako, sor daitezkeen beharretarako zerrenda osatuko da ere. Eskabideak aurkezteko epea irailaren 17an 14:00etan amaitzen da. Informazio gehiago www.altsasu.net web orrian.

Liburuzain eta kultur kudeaketako laguntzaile lanpostua betetzeko oposizio lehiaketa Arbizun: C mailako lanpostua eta euskara ezagutzea ezinbestekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea irailaren 22 amaitzen da. Oinarriak eta argibideak www.arbizu.eus web orrian, Arbizuko

Udaletxean. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuta dago ere.

Altsasun Txiribulo Udal Haur eskolan lan egiteko aldi baterako zuzendari oposizioa: Euskaraz dakien pertsona bat kontratatu nahi da baita haur hezitzaile lanetan sor daitezkeen beharrek bete ditzan ere. Oposizioa gainditzeko zuzendari kontratazio zerrenda osatuko du. Eskabideak aurkezteko epea irailaren 17an amaituko da. Informazio osoa www.altsasu.net web orrian.

LEHIAKETA

Bakarrizketa feministen I.lehiaketa: Nafarroako Indarkeriaren Aurkako Plataforma antolatuta Azaroak 25 inguruan, umorearen bidez hain normalizatuak ditugun tratu txar egoera batzuk ikusarazteko, sentibilizatzeko, ispilua jartzeko eta patriarkatuak jartzen digun benda

kentzeko. Oinarriak: Euskara edo gaztelaniaz, edozein adinetako emakumeek* parte har dezake, 10-15 minutuko iraupena izan behar du eta gidioa eta bideoa helbide honetara bidali behar da: <http://nomasvioletasexistamail.com> Lanak aurkezteko epea irailaren 30ean amaitzen da. Sariak: irabazleak 200 euro, bigarrenak 150 euro eta hirugarrenak 100 euro. Guztiak azaroen publikoaren aurrean aurkeztuko dira. Animatu eta parte hartu!

OHARRAK

Etxarri Aranatzes tresna zaharren bilketa: Udalak baratzeko, etxeko, soroko etabarreko tresna zaharren erakusketa egin nahi du eta horretarako herri-tarrei deia egiten die etxean izan ditzaketen tresnak uzteko. Tresna guztiak izendatuko dira eta erakusketaren ondoren

jabeei itzuliko zaizkie. Irailaren 24ra arte eraman ditzakezu kultur etxera, 18:00etatik 19:30era.

Lakuntzan Euskara ikasteko dirulaguntzak: Lakuntzan erroldatutako 16 urtetik gorako pertsonei zuzendua. Deialdiko oinarriak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa udal bulegoetan daude eskura eta eskariak Lakuntzako Udaleren erregistroan aurkeztu behar dira irailaren 30a baino lehen. Informazio osoa www.lakuntza.eus web orrian eta udaletxean.

Nekazaritzako Ibilgailuen Azterketa Teknikoa IAT Sakanan herriz herri: Irailak 10 Lizarragan / Irailak 13 Unanun / Irailak 14 eta 15 Etxarri Aranatzes / Irailak 16 eta 17 Iturmendin / Irailak 20 eta 21 Altsasun / Irailak 22 Olaitin / Irailak 23 Ziordian. Herri guztietan

ordutegi bera izango dute, 10:00etatik 14:30ra.

Irurtzenen 0-3 eskolatarako dirulaguntza: haurrak Haur Eskoletara eramateagatik bateragarritasuna sustatzeko dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago irailaren 30era arte. Baldintzak eta aurkeztu behar diren dokumentuei buruzko informazioa udal webgunean www.irurtzen.eus eta Udaletxean daude.

Irurtzungo konpartsa: Erraldoiak dantatzeko jende premia dago Irurtzenen. Interesa duenak hots egin dezala 690 335 196 (Amalia) telefono zenbakira.

Nafarroako Gobernuak Oinarriko gaitasun digitalak ikastaroa antolatu du Irurtzenen: Irailaren 20tik 24ra izanen da, asteleheneetik ostiralera, 09:00etatik 14:15era arte, Irurtzungo kultur etxean. Dohainik den ikastaro ho-

rren inguruko informazioa nahi duenak, edo informazioa eskuratu nahi duenak 948 600 412 telefonora hots egin edo kultur etxetik pasatu daiteke.

Altsasuko Txantxari ludoteka: Izena emateko epea irailaren 14tik 21era arte, 948 012 012 ffnora deituz edo www.altsasu.net web orrian. Ordutegiak: 2013-2009 (astelehena, asteazkena eta ostirala 15:30-16:45 eta astearte eta osteguna 18:30-20:00, urteko kuota bakarra 5 euro), 2014-2017 (asteleheneetik ostiralera 17:00-18:15, astearte bitan 49,10 euro eta hirutan badoaz 62,30 euro) eta 2021-2018 (astelehena, asteazkena eta ostirala 18:30-20:00, 0-3 urtetako saioak doakoak izango dira). Informazio gehiago 948 467 471 / ludoteka@altsasu.net.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburra.eus



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



Iratxo Binakako Botxa Txapelketako finalean partaideetako bat jaurtiketa egiten. IRATXO

Iratxoko botxategia, atzera ere martxan

BOTXA Joan den urteko geldialdiaren ondoren, bueltan dira txapelketak. Iratxo Binakako Botxa Txapelketan parte hartu duten 11 bikoteen artean Mikel Goldarazena eta Florentino Beraza gailendu dira. Irailaren 13an Bakarkako Txapelketa hasiko da

Irurtzungo Iratxo Elkartearen lorategi zoragarriaren txoko batean dago botxategia. Hitzak adierazten duen bezala, botxan jokatzeko tokia da. Irurtzunen aspalditik dute joko petankarekin antza duen joko tradizional honetik zaletasuna, eta hamaika urte daramatzate botxa txapelketak antolatzen. COVID-19 pandemiak guztia gelditu zuen, eta joan den urtean ez zen txapelketarik jokatu, baina urtebeteko geldialdiaren ondoren, indartsu itzuli dira botxa txapelketak eta jokatzearekin eta elkarrekin biltzearekin gozatu ederra hartu dute parte hartzaileek.

Abuztuaren 17an hasi zen Binakako Iratxo Botxa Txapelketa. 11 bikote lehiatu dira guztira, bi multzotan banatuta. A multzoan honako bikoteak aritu dira: Mikel Olo-Josu Olo, Eneko-Letizia, Santos-Julen, Mikel-Florentino, Asier-Amets eta Mikel Gelbentzu-Joana. B taldean, aldiz, honakoak: Mikel Arregi-Saralegi, Dani-Iñaki,

Edurne-Txutxurrin, Aritz-Maialen eta Aimar-Alvaro. Partida lehiatuak izan ziren, eta giro oso ona izan zen txapelketan. Aspaldiko jokalariekin batera, izen berri asko daude. "Izen berriak daude, bai, gazte asko animatu dira, betiko beteranekin batera. Alde horretatik, pozik gaude. Mugimendu pixka bat sortu nahi genuen, eta botxa txapelketaren aitzakiarekin, mugimendua sortu da Iratxo elkartean" azaldu du Iratxoko Mikel Goldarazena.

Multzo bakoitzean ligaxka jokatu eta gero, multzo bakoitzeko onenak pasa ziren final laurdenetara. Irailaren 1ean finalerdiak erabaki ziren. Juleni eta Santosi 7 eta 15 irabazi zieten Mikelek eta Florentinok. Beste finalerdian, Danik eta Iñakik 15 eta 4 hartu zituzten mendean Mikel eta Josu.

Irailaren 2an jokatu ziren finalak. Mikel Goldarazena eta Florentino Berazak Dani Gaintza eta Iñaki Juango izan zituzten aurkari final handian. Final oso

lehiatua izan zen, azken unera arte erabaki ez zena, estrategiaz betetakoa. Azkenean, Goldarazena eta Berazak lortu zuten txapela janztea, soilik puntu bateko aldearekin, 15 eta 14 irabazi baitzieten Daniri eta Iñakiri. Aldiz, aldea handiagoa izan zen 3. eta 4. postua zehazteko finalean. Santos Iragi eta Julen Iragi izan ziren nagusi, 15 eta 4 gailendu baitziren Mikel Oloren



eta Josu Oloren aurrean. Sarituek urdaiazpiko zatia, gazta eta txorizoa jaso zituzten opari.

Orain, Banakakoa

Binakakoari Banakako Iratxo Botxa Txapelketak hartuko dio lekua. Txapelketa irailaren 13an hasiko da. Izena ematea oraindik zabalik dago. "Pentsatzen dugu hamabosten batek emango dutela izena" adierazi du Goldarazena. Halaber, Berriozar, Antsoain, Txantrea eta Amaia taldeekin botxa jardunaldi bat antolatu nahi dute. "Irail bukaeran edo urriaren hasieran izanen da, ziurrenik" gaineratu du. Gutxika, ohiko martxari heldu nahi diote, botxa egutegi normalari. "Soilik haurren botxa ikastaroa eta txapelketa geratu zaizkigu zintzilik; datorren udarako utziko dugu" zehaztu du Iratxokoak.

Botxa jokoaz

Botxak petankarekin ezberdintasunak ditu. Petankan erabiltzen diren bolak burdinazkoak dira; botxazkoak, aldiz, ezel edo arte egurrezkoak. Botxa horiek esku-pilotako pilotak baino pixka bat handiagoak dira, eta barruan beruna dute, bolen ibilbidearekin jolasteko aukera ematen duena. Botxan aritzeko gutxienez bi talde edo bi pertsona dira beharrezkoak. Parte hartzaile bakoitzak 2 botxa dauzka, eta helburua taldearen botxa horiek botxinatik ahalik eta gertuen uztea da. Botxina burdinazko bola txikitxo bat da, botxategian kokatzen dena. Bere botxak botxinatik gertuen uzten dituen taldea edo pertsona izanen da irabazlea.

Interesatuendako, botxari buruzko dokumentala dago ikusgai YouTuben: <http://www.youtube.com/watch?v=iSgvMtZW6k>



Lagun Arteak garaipen polita lortu zuen.

Etxarrik Injertoren kontra ekingo dio ligari

FUTBOLA

Altsasu erregionala izan ezik, gainontzeko talde guztiak martxan daude

Urte bat lehiatu gabe egon ondoren, 2021/2022 Preferente Ligari ekingo dio Etxarri Aranatzek. Lehen jardunaldian Injerto izango du aurkari, igandean 18:00etan Berbinzanan jokatu den partidan.

Gizonezkoen 1. Maila Autonomikoan Lagun Arteak 3. jardunaldia du jokoan. Igandean etxean Aluvioni 3 eta 1 irabazi zion, Yonatan Dávilak, Unai Zubiriak eta Unai Bakaikoak sartutako golei esker. Behetik gora egin zuen talde lakuntzarrak. Sailkapenean 2. da, Mendi liderrarekin puntutara berdinduta, eta larunbatean, 16:00etan, Lagunak taldearen kontra jokatu du Barañainen.

Asteburuan martxan jarriko den beste liga bat emakumezkoen 1. Maila Autonomikoa izanen da. Aurreko urtean jokatu gabe egon eta gero, bueltan da Altsasu taldea eta Kirol Sporten kontra jokatu du, larunbatean, 17:00etan, Orkoienen. Irati Igoa eta Maddi Mariñelarena etxarriarren Mulierrek Castejón izango du aurkari larunbat eguerdian. Gazte mailako ligak ere abian dira, ez, ordea, Erregional mailakoa. Datorren asteburuan hasiko du Altsasuk Erregional Mailako 3. multzoko liga, San Fermin ikastolaren kontra.



Ibai Gonzalez Balenziaga, San Nikolas traineruan, serio, guztiz kontzentratuta, aurrean bi taldekide dituela. EUSKO LABEL LIGA

"Kontxan sorpresaren bat gerta daiteke; eta gu prest gaude"

IBAI GONZALEZ BALEZIAGA ORIO ARRAUNKETA ELKARTEKO ARRAUNLARIA

ARRAUNA Kontxako Bandera oso estu dago, traineruen arteko aldea oso txikia baita. Orioko arraunlari urritzoldarrak oraindik ere hobekuntzarako tarte dutela uste du

Maidar Betelu Ganboa URRITZOLA

Ibai Gonzalezek 7 urte daramatza arraunean. Urritzolakoa San Pedron hasi zen, eta gero Oriora joan zen. San Nikolas traineruan 3 urte bete ditu eta hitzordu garrantzitsuenean murgilduta dago, Kontxako Banderan.

Pandemia dela eta, Kontxako Bandera ez da berdina, ohiko jai giroa falta zaio. Baina, hala ere, Kontxak badu zerbait berezia, ezta?

Berezia da, bai Donostiarako eta baita arrauna bizi duten herriendako ere, Oriorendako ere.

Kontxako Banderako gizonezkoen lehen jardunaldian Orioko traine-ruko arraunlarietako bat izan zinen. Estropada ona egin zenuten: laugarren denbora onena egin zenuten eta bigarren jardunaldirako oherrezko tandarako sailkatu zarete.

"8 SEGUNDO EZ DIRA EZER: OLATU BAT IZAN DAITEKE, EDO BATEK BI OLATU SEGIDAN HARTZEA ETA BESTEAK EZER"

Bai, lan ona egin genuen. Denboraldi honetan argi izan dugu nor garen, zein talde gauden, jende gazte asko daukagula, talde arina, eta plantilla murrirtza dugula, eta halako errealitatea izanda, lan polita egin dugula. **Hondarribiko Ama Guadalupekoak egin zuen denborarik onena (19:06.32). Santurtzi 1,74 segundora dago, Zierbena 3,96ra eta Orio 8,50ra. 8 segundo asko dira?** (Kar, kar) Dena erlatiboa izan daiteke, baita kasu honetan ere. Lehenik eta behin igandean Kon-

txako Badian zer nolako pista edo egoera aurkitzen dugun ikusi beharko da. Itsasoaren egoeraren arabera, azken batean 8 segundo ez dira ezer: olatu bat izan daiteke, edo batek bi olatu segidan hartzea eta besteak ezer ez hartzea. Guk argi duguna da hobekuntza tarte edo alde handia dugula eta ziurrenik igandean sorpresaren bat emango dugula. Pista nola dagoen ikusi beharko dugu, baina gu sorpresa hori emateko prest egongo gara.

Zer da iragartzen dutena?

Ez zait gustatzen oraingo iragarpenak begiratzea. Badirudi, momentuz, ez dituztela halako olatu handiak iragarri, baina ikusiko dugu zer datorren.

Hortaz, ados zaude katedrak dioenarekin: Kontxako Banderako lehia estu dagoela eta edozer gerta daitekeela.

Bai. Lehendabiziko bi ontziek emandako maila izugarria izan zen, bereziki Hondarribiak emandakoa, baina argi dago Kontxako Bandera ez dagoela erabakita. Auskalo igandean zer nolako egoera aurkitzen dugun.

Eusko Label Ligaren isla izan daiteke Kontxako Bandera. Bi banderren faltan, Ligan Santurtzi da lider (193 puntu), Hondarribia bigarren (187 puntu), Donostiarra hirugarren (162 puntu) eta Orio laugarren (158 puntu).

Bai. Sorpresak egon daitezke, baina normalean Kontxako sailkapena ligaren isla izaten da. **Aldaketa asko izan dituzue aurten: patroi berria duzue, Ugaitz Mendizabal; arraunlari gazte asko iritsi dira taldera; eta talde gaztea zarete, on egiten ari dena. Oriori beti asko eskatzen zaio. Nolako balorazioa egiten duzu?**

Niretako denboraldi oso ona izaten ari da. Gurea talde gaztea izateak ez du esan nahi kalitate gutxikoa denik. Oriora jende gazte oso ona iritsi da. Harrobitik igo direnak oso kalitate handiko arraunlariak dira, eta horrek plus bat eman dio taldeari. Liga hasieratik bagenekien ze nolako zailtasunak genituen, baina lana egiteko gogoekin aurrera egin dugu eta horregatik oso balorazio ona egiten dut egindako lanaz.

"IKUSLERIK GABE, TRAINERUAN GURE ARTEAN BEHARREZKOA DUGUN MOTIBAZIOA BILATZEN DUGU"

Egia da, momentuz, zorte txarra izan dugula eta ez dugula banderarik irabazi. Estropadetan errendimendu oso altua eman dugu, baina itsasoak ere bere baldintzak ezartzen ditu eta askotan beste bati bandera ematen dio nahiz eta errendimendu hain altua ez eman.

Igandera begira nola zaudete?

Kaian zaleak ez egotea triste egiten da, hotz, baina guk gure traineru barrura begiratzen dugu gure artean beharrezkoa dugun motibazio hori bilatzeko. Jende gaztea dugu, orain arte bere burua ez duena Kontxako Bandera jokatzeko tenorean ikusi; aurten aukera hori dute, eta halako motibazioa bilatzen dugu. Lan egiteko gogotsu gaude.

Agian presio gehiago dute Hondarribiak eta Santurtzik, eta hori zuen onerako izan daiteke.

Agian presio estra bat izan dezakete. Ea guk hori alde erabili dezakegun eta lotsagabeago jokatzeko aukera ematen digun.

Telebistako emisiorako Irudi ikusgarriak lortzen dituzte traineruetan jarritako kamerek, zerutik ateratako irudiek eta bestek. Ez al zarete deseroso sentitzen jakinda guzti-guztia grabatzen dizuetela?

Tentsio gune horietan ez naiz enteratu ere egiten. Estropada unean ez gara gauza horietaz arduratzen ez konturatzen.

Zuen taldekideak, Orio taldeko emakumeak, ikusgarri dabilta. Arraun Lagunak taldearekin 1,64 segundoko alde oso txikia dute. A zer lehia espero den berriz!

Bai, ikusgarria. Arraun Lagunak eta Orioren arteko hika-mika hori liga osoan izan da, eta Kontxan ere pil-pilean dago bi talde handi horien arteko borroka.

Igandean San Nikolas trainerura igoko zara berriro?

Hori estropada egunera arte ez dugu jakiten. Horregatik ere aste hauetan tentsio puntu hori egoten da entrenamenduetan, ea patroiak zein traineru aterako duen, aldaketak egingo ote dituen edo dena delakoa.

Iturramako Institutuan filosofia irakaslea zara. Zer esaten dizute ikasleek?

Aurten ikasle berriak ditudanez, oraindik ez dute arraunlaria naizela jakingo (kar, kar...). **Urritzolakoa balkoietan bandera horiak ez dira falta. Eta zale guztiak, mirotzak, zuekin egongo dira.**

Bai, hori seguru. Eta zaleei eskerrak, animo guztiak beharko ditugu eta.



Kern Pharma Giro della Regione Friuli, Venezia e Giulia talde onenaren saria jasotzen, Urtasun eta Arrieta tartean. KERN PHARMA

Urtasunekin debutatuta, Europako Txapelketara

TXIRRINDULARITZA Kern Pharmarekin profesional mailako Giro della Regionen aritu eta gero, Igor Arrietak selekzioarekin Europako Txirrindularitza Txapelketako 23 urtez azpiko lasterketan parte hartuko du. Imanol Erbiti eta Gorka Izagirre elite mailakoan ariko dira

Igor Arrietak profesionalen mailan aritzeko aukera izan du, Pablo Urtasun urdiaindarrak zuzentzen duen Kern Pharma taldearen eskutik. Uhartearra Kern Pharmako *stagiaire* edo ikasleetako bat izan da. Lizarteko sakandarrak Kern Pharmarekin profesional mailara eginen du salto datorren urtean, eta aurreko asteburuan jokaturako Giro della Regione Friuli, Venezia e Giulia itzulian profesionalen maila ezagutzeko aukera eman zioten.

Kern Pharmak lan bikaina egin zuen aipatu Giroan. Jose Felix Parra bigarren sailkatu zen, eta talde berdea talderik edo *squadrarik* onena izan zen. Igor

Arrietak ere lan ona egin zuen, eta 51. postuan sailkatu zen.

Urtasun, oso kontentu

Pablo Urtasun pozik dago bere taldeak Italian egindako lanarekin. "Giroa lortzeko borrokan sartuta egon gara, hori da nahi genuena, eta egin dugunarekin kontentu nago" nabarmendu zuen urdiaindarrak. Balantzea "positiboa" da Urtasunendako. "Taldekako sailkapena irabazi dugu eta lehen 10 postutan 3 taldekide sartu ditugu, Jose Felix Parra bigarren, Jaime Castrillo bederatzigarren eta Jon Agirre hamargarren. Lasterketetan parte hartzeaz gain, ikasten jarraitzen dugu, eta hori gure tal-

dearendako aurrerapausoa da. Tamalez, ezin izan dugu etapa garaipenik lortu, baina maila oso onean gaude" aitortu zuen Urtasunek.

Europako Txapelketak

Italian jarraitzen du Arrietak, Espainiako 23 urtez azpiko txirrindularitza selekzioarekin Trenton jokatu diren Europako Txapelketetan ariko baita, larunbatean, goizeko 9:00etan (133 km). Imanol Erbiti eta Gorka Izagirre elite mailako Espainiako selekzioarekin ariko dira, Espainiako Vueltan euren taldeen alde lan bikaina egin eta gero. Igande eguerdian abiatuko da 179 km-ko lasterketa gogorra.

Sakandarren Vuelta

TXIRRINDULARITZA Roglic-ek agindutako Vueltan, Gorka Izagirre (Astana) lan ona egin zuen, baina taldeak ez zuen zortea alde izan. Imanol Erbitik Movistarren alde dena eman zuen, eta bere 14. Vuelta despeditu zuen, baina bere taldea krisian dago. Eta Jorge Azanzak zuzentzen duen Euskaltel-Euskadik itxura, jarrera eta kemena ikusgarria erakutsi zuen.



EUSKALTEL-EUSKADI



Joan den urteko Altsasu Proban txirrindulariak udaletxe aurretik pasatzen.

Afizionatuen mailako lasterketa sakandar bakarra, ate joka

TXIRRINDULARITZA Igandean 92. Altsasu Txirrindularitza Proba prestigiotsua jokatu da 10:00etatik aurrera

Altsasu Kirol Elkartek festetan antolatzen du afizionatuen mailan sona handia duen lasterketa: Altsasu Txirrindularitza Proba. Aurten ez da festarik izanen, baina beste urte batez taldeak lasterketari eutsi dio. Eta badira urte batzuk. Izan ere, aurtengoa probaren 92. edizioa da, erraz esaten dena. Altsasu Proba espainiar estatuko zaharrena da, eta gaur egun Sakanan antolatzen den afizionatuen mailako lasterketa bakarra.

Probak berez duen prestigioari Euskaldun Trofeoak erabakiko duen proba dela gaineratu behar zaio, Euskaldunerako baliagarria den azkena. Igandean jokatu da, irailaren 12an, goizeko 10:00etatik aurrera, Altsasu Kirol Elkarteko egoitzaren paretik, Alzania kaletik. 23 urtez azpiko eta elite mailako txirrindulariek hartuko dute parte, afizionatuen mailako onenek. Txirrindulariek 140 kilometro izanen dituzte aurretik, aurreko edizioan baina 19 kilometro gehiago.

Altamira seitan, Amezitia bitan

"Aldaketa nabarmenena da aurtent lasterketa ez dela Iturmendiraino iritsiko. Horren ordez, Amezitia auzora bi igoera sartu ditugu. Hasieran Zegamako bigegurutzeraino helduko dira txirrindulariak, baina gero Altsasu, Urdiain eta Olazti biltzen dituen zirkuitu bat prestatu dugu, Altamirako igoera eta San Pedro errepidea hartzen dituen, eta hor gauzatuko da lasterketa. Txirrindulariek guztira 6 aldiz

igoko dute Altamira, eta azken bi bueltatan Altsasutik Amezitia auzora igoko da tropela, gero ibilbidea San Pedroko bidearekin lotzeko" azaldu du Altsasu Kirol Elkarteko txirrindularitza sekioko arduradun Felix Mazkianek.

Helmuga Altsasuko udaletxe parean egongo da, eta txirrindulariak 13:15ak aldera espero dituzte, baina sari ematea ez da bertan egingo, Iortia plazan baizik. Izan ere, eskatutako osasun arauak beteaz, taldeen autoak Iortia zabalguneko plazan kokatu dituzte, eta sari ematea ere bertan egingen da.

Ohikoa denez, zale asko bilduko dira Altsasun, San Pedron eta Altamiran, proba jarraitzera. Txirrindulariak behin eta berriz herri gunetik pasatzen ikusteak interesa pizten duela aspaldi jabetu ziren Altsasu Kirol Elkartekoak, eta herrian giro ederra egongo da goizeko 10:00etatik 13:30 arte. Joan den urtean 177 txirrindularik hartu zuten parte eta Jordi Lopez (Lizarte) gailendu zen.

Kategoria txikikoak, bihar

Bihar, larunbata, Burunda Txirrindularitza Taldeak kategoria txikiko lasterketak antolatuko ditu Altsasun. 16:00etan ginkana probak jokatu dira Iortia plazan eta Zumalakarregi plazan, eta, ondoren, lineako lasterketen txanda izango da, Burunda elkartek Zumalakarregi plaza inguruan prestatutako ohiko zirkuituan.

"Motxila 21-i zumbatik eskainiko diogu laguntza"

IZASKUN BETELU ALDAZ ZUMBATHOI SOLIDARIOKO TALDEKIDEA

ZUMBA Uharte Arakilgo Zumbathoi Solidarioak musika talde ezagunari lagunduko dio. Bihar, larunbata, 11:00etan haurren lasterketa izanen da, eta 12:00etan zumbathoia

Maidar Betelu Ganboa UHARTE ARAKIL Larunbatean Motxila 21 musika taldearen aldeko Uharte Arakilgo Zumbathoi Solidarioa antolatuko du, eta Izaskun Betelu Aldaz uhartearrak ekitaldian parte hartzea animatu ditu sakandarrak.

Uharte Arakilgo Zumbathoi solidarioa antolatzeke azken ukituetan murgilduta zabilizate. Hauek egun zoroak izanen dira, ezta?

Bai, azkeneko egunak mugituak izaten dira, baina gogoz gaude. Edozer antolatzeke gogotsu dago jendea, asko nabaritzen da, eta antolatzeaz gain xedea laguntzea bada, oraindik gehiago.

Noiz hasi zinen zumban?

Duela 3 urte, Arbizuko kiroldegiko taldean, eta behin hasita, zumbak guztiz harrapatu ninduen. Musikaz lagunduta kirola egiten duzu, ongi pasatzen duzu eta gustura goaz klaseetara. Mayra Palop arbizuarrak da gure monitorea eta taldean sekulako giroa dugu. Bestalde, deskonexioa ematen dizu zumbak. Guztiaz ahaztu egiten zara, eta dantzatzen duzu, gustura. Denbora ongi pasatzea, hori da kontua. Jendea zumban aritzera animatuko nuke, zalantzarik gabe.

Joan den urtean antolatu zenuten lehenengoz Uharte Arakilgo Zumbathoi Solidarioa.



Kepa Gordo, Izaskun Betelu eta Amagoia Betelu, Zumbathoiko kartela eskutan. UTZITAKOIA

Joan zen urtean minbizia duten haurren ADANO elkartearen aldeko Zumbathoi Solidarioa antolatu genuen lehenengoz. Aurretik Arbizun egiten ziren Zumbathoia, baina Arbizuko kiroldegia ez zituen COVID-19 pandemiagatik eskatzen ziren neurri batzuk betetzen, sartzeko eta ateratzeko ateak zirela eta. Uharte Arakilgo Larrabieta frontoiak arau horiek betetzen zituzenez, ekimena bertara ekartzea erabaki genuen, Uharte Arakilgo Udalak aurrera egitera animatu gintuelako.

Beraz, momentuz Arbizuko Zumbathoien lekukoa hartu du Uharte Arakilgo.

Bai, baina aipatutakoagatik. Aurrerago ikusiko da.

Zenbat kide zaudete Zumbathoien antolakuntzan?

Arbizuko zumba taldeko Kepa Gordo eta ni neuz, eta Uharte Arakilgo zinegotzi Amagoia Betelu batez ere. Eta baita Uharte Arakilgo Udala ere. Udalak asko laguntzen du.

Pandemia dela eta, eskatutako arauak zorrotzagoak ziren joan zen urtean, baina hala ere ekitaldia

aurrera ateratu zenuten. Pentsatzekoa da aurten esperientzia hori alde izango duzuela.

Bai, jakina. Joan zen urtean gogorra izan zen, egunetik egunera arauak aldatzen zirelako. Zumbathoia bertan behera uzteko zorian egon ginen, baina Uharteko Udalak esan zigun aurrera egiteko, ordura arte egindako lana ezin zela utzi. Eta asko eskertu genuen. Aurten egoera hobea da.

Aurtengo ekitaldian jasotakoa Down sindromea duten neska-mutilek osatutako Motxila 21 musika taldearendako izango da. Taldeko kide dira Aintzane Lizarraga saxofoi jole dorrobarra eta bere ahizpa Ainhoa akordeoilaria.

Hain zuzen ere gure taldekide Kepak Ainhoa Lizarragarekin egin zuen topo, eta hark aipatu zizkion pandemiak taldean izandako ondorio latzak. Bi urte hauetan ezin izan dute kontzerturik eman, entsetzeko ere gaizki ibili dira, eta horrek sekulako geldialdia ekarri dio taldeari. Edozein talderendako 2 urteko geldialdia asko da, baina beraien dako gehiago, ia-ia zerotik hasia. Orduan Kepak proposatu zion aurtengo Zumbathoia Motxila 21 taldearen aldekoa izatea. Ainhoari ongi iruditu zitzaion, eta horrela hasi ginen lanean.

Uharte Arakilgo Zumbathoiko lehen hitzordua larunbatean, goizeko 11:00etan izanen da, haurrendako lasterketa solidarioa.

Frontoitik aterata, herriari buelta bat emango diogu, kilometro ingurukoa, eta gurasoek ere parte hartu ahal dute. Izena ematea 2 eurokoa da, eta bukatzean txokolate jana izango da.

Eguerdian hasiko da Zumbathoia. Zenbat monitore egongo dira?

Guztira 6 monitore egongo dira. Batetik, nagusiak: Elena, Itziar,

Alberto, Marian eta Arbizuko Mayra. Bestalde, Arbizuko gazteen zumba taldeko Leire Rabatek kantu eta koreografiaren bat prestatuko du.

Non egin behar da izena ematea? Larunbatean bertan, frontoian. Zumbathoian parte hartuko dutenek 5 euro ordainduko dituzte, eta ikusleek, aldiz, 2 euro. Motxila 21 taldekoek behar handia dute, eta ea jendea animatzen den. Jende asko espero dugu. Bukarera zozketa egingo da. Opari politikak daude.

Zenbateko aforoa duzue baimendua? Frontoi barruan, parte hartzaileak 200 izan ahal dira, eta ikusleak 100. Baina eguraldi ona iragartzen dutenez, frontoien kanpoaldean egingo dugu, eta kanpoan partaide gehiago izan daitezke.

Bukaera berezia izango du ekitaldiak, Motxila 21 taldekoek parte hartuko dutelako.

Hasiera batean eurek kontzertu bat eskaintzea zen asmoa, baina 2 urte jo gabe daramatzatenez, ez dira ausartu. Horregatik, ekitaldia bukatzeko Motxila 21eko kideekin dantza bat egingo dugu. Beraiek dantzatzera gonbidatuko ditugu.

Sakandarrak Uhartetik pasatzera gonbidatzea da falta den bakarra.

Bai. Nahi duenak dantza egin dezala, edo korrika, edo ikusle izan dadila. Ongi pasatzea da kontua, eta bitartean Motxila 21 laguntzea. Beraz, mundu guztia animatzen dugu zumbathoira etortzera.

"MOTXILA 21-EN ALDE ZUMBATHOIAN ONGI PASATZERA ANIMATU NAHI DITUGU SAKANDARRAK"

Jon Erdoziak Lukinen lortu du juniorren bere lehen garaipena

TXIRRINDULARITZA Sakana Group-Aralar taldeko etxarriarrak palmaresa mustu zuen eta bere taldea izan zen onena

Larunbatean XLVIII. Lukin Udala Saria jokatu zen, eta kadeteak eta juniorrak elkarrekin lehiatu ziren 82 km zituen proban. Lasterketa mugitua eta urduria izan zen, etengabeko erasoekin, baina Sakana Group-Aralar taldeko

Jon Erdozia Gonzalez de Pedroso etxarriarrak lasterketaren irakurketa bikaina egin zuen eta juniorren mailan bere lehen garaipena lortu zuen, helmugara bakarrik heldu eta gero (1:58:35). 25 segundora Ibon Diaz (Garaje

Moderno) sartu zen, eta 22 segundora 7 txirrindulariz osatutako taldetxoak, tartean Aimar Tadeo (Sakana Group) eta Sergio Lopez (Quesos Albeniz-Burunda) zeudela. Gainontzeko txirrindulari sakandarrek ere lan itzela egin zuten.

Lukinetik aparte, Araban ibili dira gure txirrindulariak. Quesos Albeniz taldeko kadeteek Arabako Itzuliko bi etapa jokatu zituzten eta Sakana Groupeko juniorrek, aldiz, Maeztuko II. Araba Klasikoa.



Jon Erdozia Lukingo podiumean, merezitako garaipenaz gozatzen. SAKANA GROUP-ARALAR



Ainara Urrutia, Joseba Galarza eta Javier Borrega Bargagainera bidean, indar betean.

Bargagaingo igoera, labor bezain gogor

MENDI LASTERKETAK Dantzaleku Sakana klubak antolatutako I. Bargagain Igoera 63 korrikalarik osatu zuten, erdia sakandarrak. Mikel Beunza eta Ainara Urrutia gailendu ziren, eta Beñat Katarain eta Haizea Ramirez de Alda izan ziren lehen sakandarrak

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Lainotuta eta fresko. Eguraldi horrekin ekin zioten Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak hainbat babesleren laguntzarekin larunbat goizean Altsasun antolatutako I. Bargagain Igoerari izena eman zuten 60tik gora partaidek, erdia inguru sakanadarrak. Probaren lehen edizioa izateko, partaidetza polita izan zen, eta oso kontentu zegoen antolakuntza.

Foru Plazatik abiatuta (528 m), Izelai Hotel pareraino iritsi, BM merkataritza gunearen parean buelta hartu, Iru Bide pareraino heldu eta Bargagainera igotzea (1.153 m) zuten helmuga. 4,2 kilometrotan 625 metroko desnibela. Horren distantzia gutxian horrenbesteko desnibela ez da edonolako, eta lasterketa gogorra izan zen Bargagaingo Igoera, oso teknikoa. Hori kontuan hartuta, goizeko freskura gogoz eskertu zuten korrikalariek, korrika egiteko eguraldi aproposa baitzegoen.

Lehendabiziko malda gogorretara nahiko batuta iritsi zen tropela, baina hor hasi ziren kokatzen eta aldea ateratzen. Alkotzeko Mikel Beunzak erritmo oso gogorra ezarri zuen, tarte ateratzen hasi eta, azkenean bakarrik iritsi zen Bargagainera (30:18). Minutu pasa atera zion Xabi Macias bigarrenari (31:20), eta 2 minutuko aldea Beñat Katarain lakuntzarrari (32:18). Hel mugara 6. sartu zen Eukeni Goikoetxea izan zen lehen altsasuarra.

Emakumezkoetan Ainara Urrutia aretxabaldarrak ez zuen areriorik izan (38:22). Bi minutu pasako aldea atera zion Haizea Ramirez de Alda altsasuarrari (40:40). Garazi Sanpedro atxondarra izan zen hirugarren (40:57).

Behin korrikalari guztiak Bargagain gainera iritsi eta gero, guztiek elkarrekin ekin zioten jaitsierari eta eguerdian, 12:30ak aldera, sari banaketa egin zen Foru Plazan. Irabazleek txapela jantzi zuten eta saritutakoek

Katealde eta Conservas del Reyno etxeetako produktu loteak jaso zituzten. Azkenendako ere izan zen saria: Il Padrino jatetxean otordua.

Beriainek hartuko du lekukoa

Bargagaingo Igoerari irailaren 19an jokatu den Uharteko Arakil-Beriain Km Bertikalak hartuko



Lainoa izan zuten bidaide korrikalariek. Argazkian Katarain, taldeaz tiraka.

Sakandarrak

30 sakandar sailkatu ziren.

Gizonak

1. Mikel Beunza (Alkotz)	30:18
3. Beñat Katarain	32:18
6. Eukeni Goikoetxea	33:39
11. Aritz Munarriz	35:14
18. Javier Borrega	37:32
22. Joseba Galarza	37:47
25. Ander Galarza	38:24
28. Alatz Agirre	38:36
29. Joseba Iza	38:50
31. Ander Iraizoz	39:29
32. Asier Ansa	39:38
33. Unai Razkin	39:40
34. Aimar Araña	39:42
38. Xabier Bergera	40:52
41. Igor Artieda	41:39
44. Isidro Asurabarrena	42:17
45. Ion Igoa	42:34
46. Fran Araña	42:36
48. Jose Antonio Salgado	42:56
50. Fermin Azkargorta	43:57
52. Inhar Olabide	46:30
53. Ekhi Olabide	46:33
54. Aitor Salinas	47:15
58. Iñaki Agirre	48:38
59. Ioni Araña	50:15
60. Damian Andueza	55:43

Gizonak

24. Ainara Urrutia	38:22
36. Haizea R. de Alda	40:40
42. Marina Zabala	41:47
55. Sonia Alonso	48:09
62. Nerea Arguelles	1:01:28
63. Esti Mateos	1:03:09

dio txanda. Aspaldi agortu ziren Aralar Mendi klubak korrikalarien esku jarritako 200 tokiak, eta soilik itxaron zerrendarako eman daiteke izena. Uharteko Arakiletik aterata (471 m), Beriain gainera igotzea da erronka (1.494 m), 5 km eta 1.023 m desnibela dituen proban. Ibilbide hau bera Iker Karrera mendi korrikalari ezagunak egin zuen aurreko larunbatean, eta ondoren *Iker cabeza de Karrera* bere liburuarren aurkezpena egin zuen.



Zabaletak egutegi estua du.

Zabaletak Masterseko finala jokatu nahi du

PILOTA Zabaletak eta Olaizolak, Altuna eta Aranguren izango dituzte aurkari finalerdietan

Udako torneo luzea azken txanpara heldu da eta asteburu honetan jakingo dugu zein bikok jokatuko duten irailaren 19an Gasteizko Ogetan erabakiko den final handia.

Bi finalerdi ikusgarriren atarian gaude. Larunbatean, Vianan, Elezkano II.ak eta Mariezkurrenak Peña II.a eta Rezusta izanen dituzte aurkari., eta igandean Hondarribiko pilotalekuak Altuna III.a-Aranguren eta Olaizola II.a-Zabaletaren arteko norgehiagoka hartuko du.

Aurreko koadroetan Olaizolak eta Altunak goi mailako lehia izanen dute. Atzean, printzipioz, Zabaletak du Aranguren baina berme gehiago, baina ez da makala. Hortaz, goi mailako lehia da Hondarribian espero dena.


Sanmateotako feria

Masters CaixaBank torneoa jokatu eta gero hasiko da Logroño-ko Sanmateotako Binakako Torneo. Zabaletak Victor errioxararekin osatuko du bikoa, eta Etxarreno atzelaria gogotsu eta kontentu dago. "Victor etxeko pilotaria denez, zaleak alde izango ditugu" azaldu du, irribarrez. Finalerdietan, Ezkurdia eta Rezusta izango dituzte aurkari, biko sendoa. Logroño-koa, ohiko torneoak berreskuratze bidea da.

Udako argazki lehiaketaren irabazleak



1. Saria (epaimahaiarena):
OIHANE KINTANA IGOA
'Goizaldeko lehen argi izpiak' argazkiarekin



2. Saria (guaixe.eus kontsumitzaileen bozkak):
JUAN ANTONIO GOMILA
'Juanan' argazkiarekin

Argazki
guztiak
ikusteko:
guaixe.eus



BAZTERRETIK

IUNE TRECET OBESO ©

Trolla jaiotzez, ez egitez

Munduko pertsonen ia erdiak dauka Interneterako sarbidea, eta gutxi gorabehera hirutik batek egunero erabiltzen ditu sare sozialak. Sozializatze modu berri horrek figura berri bat ekarri du gure bizitzetara: trolla.

Wikipediaren arabera, troll hitza iskanbila dibertimendu moduan bultzatzen duena izendatzeko erabiltzen da, eztabaida nahita sustatzen duena, parte hartzaileak haserraraziz eta haien artean zatiketa bultzatuz. Askotan

esaten da, sareak ematen duen anonimotasunaren ondorioz, erabiltzaile batzuk troll bihurtzen direla. Baina hori ez da errealia.

Aarhus Unibertsitateko 'Sareko liskar politikoen psikologia' ikerkuntzaren arabera, Internetek ez ditu erabiltzaileak gogaikarri bihurtzen; jarrera horiek dituztenen bozgorailu da Internet. Hau da, sareko eztabaidetan jendea ez da oldarkorragoa jartzen, aldiz, jarrera horiek ikusgarriagoak

dira eta leku gehiagoetara iristen dira.

Uler genezake online sortzen diren debateetan errazago erasotzen dugula parean dagoena. Ez dugu jendearen aurpegia ikusten, eta idazteko erritmo azkarrak gaizki ulertuak ekar ditzake, baina ikerketak argi utzi duena da denok ez dugula erasotzaile izateko joerarik. Ondorioz, nahiz eta horretarako aukera sortzen den, pertsona batzuk oldartu egingo dira eta beste batzuk ez.

Azken finean, sarean ditugun erlazioak bizi garen gizartearen isla dira. Sare sozialetan pertsona lodi bati eraso egiten dion berberak, kalean pertsona horri "lodia!"

oihu egingen dio. Sarean eraso arrazistak egiten dituen trolla, diskoteka batean sartzen utziko ez dizun pertsona bera da. Edo online homosexuala izateagatik gaizki tratatzen duen pertsona, asteartean 'marikoia' deituz Gasteizen ukabilkadaka aritu zena izan liteke. Sareak egiten duena da jarrera horiei guztiei zabalpena eman.

Troll horien profilari dagokienez, ezaugarri garrantzitsuena enpatia falta izaten da, batez ere beste pertsonen sentitzen dutena ulertzeko garaian. Horrekin batera, sadismoa eta autoestimu altua izanez gero, trolla izateko aukera areagotzen da.

Enpatia faltaren ondorioz, ezin dugu eraso hauen aurrean gizatasuna eskatu eta min eman digula erakusteak trollen jarrera areagotzea ekar dezake. Horregatik, garrantzitsuena da bozgorailu efektua geldiarazteko "Don't feed the troll" edo "Ez elikatu trolla" jarrera hartzea, jaramonik ez egitea. Baina isilik gelditu nahi ez baduzu, Donestecheko emakumeek* dioten bezala, aliantzak egin zure komunitatean eta denen artean egin aurre trollari. Horretarako aukera ugari daude: salaketa publikoa, eztabaida, umorea... nork bere bidea aukeratu beharko du. Ez egin zuk bakarrik aurre.

"Istorioa beraien bizitzetatik kontatzea falta zen"

AMETS ARZALLUS ANTIA KAZETARIA

Altsasu Auziari buruzko 'Altsasu (Gau Hura)' film dokumentala lortia kultur gunean mustuko dute, irailaren 18an. Auziaren alde "humanoena" jaso dute egileek

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Lau urtez Marc Parramon Bori dokumentagilea eta Amets Arzallus Antia kazetaria Altsasuko Auziko inguruko dokumentala egiten aritu dira. Ekainean Docs-Barcelonan mustu ondoren, lana Altsasuko Iortia kultur gunean aurkeztuko dute. Irailaren 18an, larunbata, izanen da, eta bi emanaldi egonen dira: 17:00etan eta 19:30ean. Bi saioetan egileak eta protagonistak egonen dira, proiektioaren ondoren "solasaldi bat egitea interesgarria" izanen delako. Arzallusen lehenengo film dokumentala da.

Zergatik egin Altsasu auziaren inguruko dokumental bat?

Altsasuko auziak Altsasurako, Sakanarako, Euskal Herrirako eta hemendik harago ere interesa piztu zuen. Edo piztuarazi zuten. Interes asko gurutzatu ziren, eta ikuspegi periodistiko-tik, politikotik, baina baita humanotik ere badu zer aztertu. Nola da posible gau bateko gertakizun horien inguruan sortu den zurrumbilo izugarri hori? Ni neu, euskaldun bezala, hunkitzen ninduen gaiak, eta gero Marcen deia jaso nuen. Marc dokumentalagile katalana ezagutzen nuen, laguna nuen, eta jakin-minez zegoen nola zen posible horrelako zurrumbilo bat gertatzea. Zer bilakaera izango zuen ere ez genekien, baina esan

zidan grabatzen hasi nahi zuela, eta euskaraz dakien konplize bat behar zuela, elkarriketak egiteko gaitasuna zuena eta hurbilekoa zena. Konplizitate hori bagenuen, eta gaiarekiko neukan kezkatik abiatuta hasi ginen lanean.

Beraz, hasi zinenen Parramonek proiektua abiatuta zuen.

Buruan zeukan. Gai hori lantzeko kezka eta ilusioa zeukan. Bi hamarkada inguru daramatza dokumentalak egiten. Hark dei-

tu zidanean, lagunduko nio la esan nion. Laguntzen

hasi nintzen, eta pixka bat bien artean egiten bukatu dugu. Ofizioa ikasten joan naiz, ni ez nintzen ibilia gisa honetako lanetan, ez gidoigintzan ez beste kodigo batzuetan. Ikasten ibili naiz.

Duela lau urte hasi zineten. Nolakoia izan da prozesua?

Altsasura lehenengo aldiz hurbildu ginen 2018. urtearen lehenengo egunetan. Epaietarako oraindik hilabete batzuk gelditzen

ziren; ehun egun gelditzen ziren, prentsaurreko bat egin zuten Iortian. Gertakizuna izan eta gutxi gorabehera urtebetera joan ginen. Epaietari begira zeuden familiak. Familiengana hurbildu ginen. Marcen estiloa eta bere dokumentalen estiloa dokumental gintza behatzailea da. Hurbildu, behatu, pixka bat pertsonaien bizitzetan sartu eta paisaia desagertu ahalik eta arrasto txikiena utziz. Begiratu nola bizi duten barrutik gisa honetako prozesu bat. Orduan, familiengana hurbildu ginen eta haiengandik oso harrera ona jaso genuen hasieratik, laguntzeko prest zeuden, eta guk behatu genituen, galderak egin genizkien. Momentu hartatik epaietara artekoa, ostekoa, kartzelaldia... Nahi baino luzeago egin den denbora hori guztia haien begien atzean sarturik bizi izan dugu, edo horretan saiatu gara. Haien bizipenen lekukotasuna dakargu. Artxiboa egin dugu ere. Hainbeste publikatu eta idatzi da, aktore bat gehiago dela medioetan azaldu den guztia. Estetikak garrantzia handia du; Marcek sentsibilitate estetikoarekin grabatzen du. Nire aldetik, bertsoetatik, Marcek nahi zuen estilo artistiko jakin bat edo sortze puntu bat bertsoei ahotsa emanez. Dosifikatzen saiatu naiz.

Auziari buruz asko esan da. Baina artean bazegoen zer esan. Beste ikuspuntu bat eman diozue.

Familiek ahots bat izan dute, eta aktore politiko inportantea izan dira. Seguruenik, kasuaren bilakaeran erabakigarriak izan dira. Baina hori kenduta, horrelako kasu bat gertatzen denean, gertatzen denaz medioek, politikoei, iritzi emaileek eta mundu guztiak hitz egiten du, askotan haiek, protagonistek, izan ezik. Kasu honetan, hasieratik kartzelan egon direnek sekula ez dute ahotsik izan kartzelatik atera diren arte, ez bazen gurasoen ahotik. Eguneroko bizitzan protagonistek duten bizitza falta da, eskalarik xumeena eta humanoena hartuz. Zurrumbilo politiko horren erdian zein den haien ahotsa eta bizipena. Horren bila ibili gara. Horrek eskatzen du jarraipen luzea egitea, denbora, elkarriketa pila bat eta, batzuetan, momentu intimo batzuetan egotea, beraien erres-

petua eta duintasuna orekatuz. Kazetari, erreportari edo dokumentagile bezala hurbildu nahi duzun puntua eta jakin-mina zein den jakin behar duzu. Bien arteko oreka bilatu behar da, eta istorioa beraien bizitzetatik kontatzea falta zen. Bestela, debate, liskar eta zurrumbilo hutsa izan da.

Harreman estua izan duzue familiekin. Nola banatu alde pertsonala eta profesionala?

Bakoitzak bere lanarekiko duen zorrotasuna eta konpromiso profesionalarekin lotuta dago. Gauza bat da harremana eta konplizitatea, eta elkarlaguntza izugarria, eta beste gauza bat da zuk egiten duzunean horri buruzko lana, zure obra, hartu behar duzun independentzia osoa. Independentzia hori lortzeko beharrezkoa da, distantzia puntu bat edukitzeko. Bestela, beraiek egin zezaket dokumentala. Kasu honetan, hasieratik argi egon da gure intentzioa eta planteamendua. Independentzia osotik egin genuen, eta gure ikuspegi politikoa ez ezik, estetiko eta artistikoa ere eman nahi genien gertakizunei. Hortaz, geure burua zorrotz hartu, eta beraiekin denbora guztian enpatizatu duzun guztia esku batean jarri, eta, beste aldetik, narratiba propioa eman. Dilema pertsona batean sartzen zara, eta saiatzeko zara zorrotz eta hotz egiten gauzak. Gisa honetako dokumental batean, publiko zabalarari zuzenduta dagoenez, ahots eta galderei lekua ematea inportantea da, eta ez egin arrazoiak gairako dokumental bat, dena lerrokatuta. Sinesgarritasuna galtzen du. Familiekin izan duten sinesgarritasuna eta transbertsalitate izugarria, eta guretzat erdua izan da obra egitean. Oso libre utzi gaituzte; oso libre sentitu gara.

"MARC JAKIN-MINEZ ZEGOEN NOLA ZEN POSIBLE HORRELAKO ZURRUMBILO BAT GERTATZEA"

"ESTETIKAK GARRANTZIA HANDIA DU; MARCEK SENSIBILITATEA, ETA NIK BERTSOAK"



Iñaki Abad 'Altsasu (Gau Hura)' dokumentalaren protagonistetako bat. UTZITAKOA

Zer espero zenuten Altsasura etorri aurretik? Eta zer aurkitu zenuten?

Egia esan, ez dakit gehiegi espero genuen badirelako urte batzuk, eta hainbeste bidaia egin ditugu non zaila den gogoratzea. Baina gogoratzen naiz etorri ginen lehengo aldian sufrimendu aurpegiak aurkitzea espero genuela. Askari beldurgarria zen orduan mahai gainean zegoena: bizitza osorako kartzela zigorrak gau bateko gertakizun batetik abiatuta. Izu aurpegiak espero genituen; ulertezina, haserre erraldoi bat. Lehengai humano hori izan da hasieratik dokumentalaren oinarria. Zailtasun horien guztien aurrean pixkanaka aurkitu dugu erresilientziarako gaitasun handi bat. Edonorekin hitz egiteko prest, horma horren gainetik edo zirrikitu batzuk eraiki eta beste diskurtso politiko bat eraikitzeko prest zegoen jendea. Norbere egoera pertsonal izugarri hori hartu, eta haserretik planteamendu politiko transbertsal batzuk eraiki. Modu irekian erantzuten zuen jarrera bat aurkitu genuen gurasoen taldean eta inguruan. Euskal Herriarentzat aro bat gairitu eta ispilu on bat aurkitu dugu. Altsasurako ez ezik, harago ere baliagarria den mugarri politiko bat izan da auzia.

Katalunian oihartzun handia izan du ere.

Kasualitateak elkartzen ditu antzeko bizipenak dituzten



Altsasuko inauteriek filmean garrantzia handia dute. UTZITAKOA

jende multzoak. Katalunian independentzia erreferendum horren inguruan bizi izan zutena, jasan zuten guztia, bere ondorio errepresiboeikin; konplizitate emozionala bilatu dute. Egoera politiko antzekoan dauden bi jende multzo dira, orduan, naturalki elkarrekiko hariak lotzen ditu. Katalunian elkartasun sare izugarria izan da. Gurasoen ondoan egonda ikusi dugu ere. Baita Kataluniatik harago ere, estatuan, Europan. Baina Katalunian aspimarratzekoa da.

Altsasuko inauteriek garrantzia handia dute. Hasieratik pentsatu zenuten?

Dokumental bat egitean, kazetaritza narrazio hotza, erreportaje politikoa edo ahalegin kreatiboa egin daitezke. Hari estetiko bat behar da: erritmoa, kolorea, paisaia... hartzen du pantailak. Marcek sententzietatik hori bazuen, eta inauteriek, hori egon litekeen ikuspegi edo arrisku folklorikotik harago, estetiko oso bat eskaintzen zuten. Zurrumbilo handi bat islatzen dute. Metafora gisa ere baliaga-

riak ziren, kontuz ibilita, karrikatura folklorikoetan ez erortzeko. Auziaren hasieratik sortu zen, batez ere medioetan eta iritzi emaileetan, mounstroa edo piztia metaforizatzeke balio izan du, eta, aldi berean, estetika bat ematen dio. Interesgarria zen hori lantzea. Altsasuren erretratu bat egiteko ere balio izan du. Gertukoek ezagutzen dute, baina ezagutzen ez dutenentzako, Altsasuren erradiografia kulturala da. Iruditeria horren barruan zerbitu ematen zion. Inauteri berezia eta estetikoki oso indartsua da. Herri-tarrek nola bizitzen duten. Herri bat, elkartasun bat, ikusten da; herri mailako bizipen bat komunitatea sortzen duena. Espikatzen eta hitzez jartzen errazak ez diren sententzietatik eta bizipen batzuk eragiten ditu.

Proiektua bukatzeko crowdfunding-a egin zenuten, eta marka gairitu zenuten. Espero zenuten?

Dokumental bat sortzeko beharrezkoa zen finantziarioa. ETBk eta TV3ek parte xume bat izan zuten, baina bukaerara eramateko jendearen laguntza behar izan dugu. Jendeari eskatzea, egia esan, ez da erraza, baina hala egin behar izan genuen. Hasieratik izan genituen elkartasun sareak Altsasu auziaren inguruan, gurasoen inguruan. Izugarri lagundu du. Esker hitzak besterik ez dut. Jende horrek asko lagundu du dokumental hau bukaeraraino eramaten. Bagenuen itzaropena, baina ikusten genuen ez zela erraza. Egunez egun joan zen handitzen, eta, jendeari laguntzari esker, erraza ez zen hori gauzatu ahal izan zen, eta gairitu zen. Esker oneko mezua zabaldu nahi dut. **DocsBarcelona jaialdian mustu zenuten dokumentala, eta orain Altsasun.**

Produktoreen lana izaten da zabalpena eta ibilbidea. Niri eskuetatik joaten zait. Nahiko lan izan nuen aurrera eramaten hartutako ofizio berria. Ez dakit dena ofizioaz. Bartzelonako dokumental jaialdia oso inportantea da, eta han aukera eman zituzten estreinatuta ahal izateko. Harrera oso ona izan zen, baina orduetik tiraderan gordeta egon zen. Orain Altsasun estreinatuko dugu. Jaialdiekin eta zinema aretoekin hitz egiten ari dira. Espero dut azkar izatea. Jende guztiarekiko zor moduan sentitzen dut.

"LEHENGAI HUMANO HORI IZAN DA HASIERATIK DOKUMENTALAREN OINARRIA"

"ALTSASUKO INAUTERIAK METAFORA GISA ERE BALIAGARRIAK ZIREN"



Susana Santano Diaz AEK-ko euskaltegiko euskara ikaslea.

"Konturatu gabe ikasten ditugu gauzak"

Susana Santano Diaz altsasuarrak betidanik izan du gustukoa euskara, eta ikasi nahi zuen. AEK-ko Itsasi euskaltegiko ikaslea da orain, eta aurten laugarren ikasturtea egingen du Altsasuko egoitzan

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

1 Noiz hasi zinen euskara ikasten?
Ni duela hogeit edo hogeita

bost bat urte hasi nintzen ikasten. Intentsibo batean hasi nintzen, uda batean. Gero ikasketak egitera Iruñeara joan nintzen,

eta euskara alde batera utzi nuen. Gutxi gorabehera hogeit urteren ondoren, duela hiru urte, hasi nintzen berriro, eta

aurten nire laugarren ikasturtea izango da.

2 Zerk mugituta hasi zinen?

Betidanik gustatu izan zait euskara ikastea, beti neukan ideia hori buruan. Oporretan ez neukan ezer egitekorik, eta horrekin hastea pentsatu nuen.

3 Itzultzea erabaki zenuen, zergatik?

Ezkundu nintzen, bi seme izan nituen, eta seme txikia eskolan hasi zen. Orduan, niretako hiru ordu nituen goizetan, eta gogoratu nintzen euskara oso gustuko nuela eta berriro hastea pentsatu nuen. Gainera, lana aurkitzeko, euskara behar nuen. Bi gauza horiek izan ziren. Beti neukan buruan, baina aitzakiak aurkitzen nituen. Momentua iritsi zela pentsatu nuen, deitu nuen, eta horrela, bai ala bai, joan behar nintzen.

4 Gogoratzen zinen?

Lehenengo egunean oso urduri joan nintzen. Hasiera oso berezia izan zen. Edurnekin hitz egiten egon nintzen zer maila neukan ikusteko, eta hasierako mailan, zero mailan, hasi nintzen. Dena ahaztuta nuela uste nuen nik. Lehenengo astean dena gogoratzen hasi nintzen, ordea, eta beste maila batera igo nintzen. Bertan ematen zena ere nik banekien, eta bigarren mailan gelditu nintzen. Aurten B2 mailan hasiko naiz. Askok ikasten ari gara, nabaritzen da.

5 Nolakoak dira klaseak?

Oso atseginak. Oso erraz ikasten da. Ez ditugu bakarrik fitxak egiten. Gauzak modu desberdinean egiten ditugu, eta konturatu gabe ikasten dugu. Esaterako, filmak ikusten ditugu, jokoak, albiste bat irakurtzen dugu eta komentatzen dugu edo titularrak idatzi behar dugu, bideo bat, errezeta bat egin eta gero grabatzen digute hitz egiten askatzeko... Hitz egiteko lotsa handia dugu. Nik behintzat.

6 Oso praktikoak dira, ezta?

Fitxak ere egiten ditugu. Dena ez da horrela. Gainera, aditzak ikasteko nik ez dut beste modu bat aurkitu. Baina eguneroko gauzak lantzen ditugu.

7 Azterketak eta probak egiten dituzue?

Normalean, ez. Ez daukagu presio hori. Ni pentsatzen ari naiz aurten azterketara aurkeztea, nire helburuetako bat da. Oso lasai egoten gara, hala ere.

8 Zer lortu nahi duzu?

EGA ateratzea beste maila batean dago, baina nire lehenengo helburua tituluren bat lortzea zen. Baina orain ikuspuntua aldatzen ari naiz. Lotsarik gabe eta konfiantzarekin hitz egin nahi dut. Hori lortu nahi dut. Norbaitekin elkartzen banaiz, berarekin lotsarik gabe hitz egitea. Pentsatzea: zuk badakizu eta ahal duzu. Pixkanaka ari naiz, eta oso harro nago.

9 Euskara ez ikasteko aitzakietako bat da zaila dela. Zer diozu?

Zaila da. Aditzak, deklinabideak, mugagabeak... Gaztelaniarekiko oso desberdina da. Orduan, txipa aldatu behar duzu. Normalean, gaztelaniatik itzuli egiten dugu, eta horrela ezin da. Beste forma bat du, eta txipa aldatu behar da. Baina oso polita da. Desberdintasun hori oso polita da. Kostatzen da, baina lorpenak ikusten dituzunean aurrera egiteko gogo gehiago sartzen zaizu.

10 Alde txarra? Eta ona?

Zaila da zerbait esatea, ni oso gustura noa. Orain denbora gehiago daukat, baina hasi nintzenean niretzako hiru ordu nituen. Zazpi urte neraman goizetan libre izaten, eta etxean oso lasai nengoen. Errutinak nituen. Orduan, ordu horiek euskarari eskaintzea... baina merezi du. Eta oso giro ona sortzen da. Ikas-kideekin, irakasleekin... gauza asko egiten ditugu, eta niri oso erraza egiten ari zait. Nire esperientzia da, noski. Baina giroan nabaritzen da gustura joaten zarenean.

11 Zer egin zenuen euskaltegian izena emateko?

Euskaltegira deitu nuen (948 468 258) eta Patxirekin, zuzendariarekin, hitz egin nuen. Berak esan zidan maila jakiteko proba egingo nuela, eta horrela maila batean edo beste batean jarriko nindutela. Prezioak eta dirulaguntzak azaldu zizkidan ere. Oso argi neukan.

2021-2022ko IKASLE ETA IRAKASLE AGENDAK

GARAIZ ZABILTZA

EGIN ZURE ESKAERA

618 640 056 | gk@gkomunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Altsasu